



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA					KODEA: 013379	2020-21		
ARLOA	GAZTELANIA ETA LITERATURA					DATA 2020-09-07			
MAILA	DBH 1	DBH 2	DBH 3	DBH 4	BATX 1	BATX 2	X		

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA
	<ul style="list-style-type: none"> - Ahozko eta idatzizko esaldi jasoak (zientifiko-kultural-kazetaritza-teknikoak eta abar...) beren helburu desberdinak eta ekoizten diren komunikazio egoerak antzemanaz. Gainera kritikoki beren ideologi edukia aztertuko dira. - Testu-iruzkinetan sakontzea eta hizkuntzaren osagarri desberdinei buruz (morfosintaktikoa, lexiko-semantikoa eta testuala) eta erabilerari berari buruz gogoetak egitea. Bizitza sozial eta kulturaleko testuinguruetako ahozko diskurtsoak eta diskurtso idatziak ulertzea. - Ahoz eta idatziz, diskurtso koherenteak, zuzenak eta egokiak erabiltzea, komunikatzeko eta hainbat egoerataraz egokitzeko. - Hizkuntzaren erabilera soziala aztertzea gogoeta eta kritika eginez. - Hizkuntzaren osagai soziolinguistiko, diskurtsibo eta gramatikalei buruz gogoeta egitea. - Literatura-testuak modu autonomoan irakurriz gozatzea, beste mundu eta kultura batzuk ezagutzeko.

2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA				
	1. ebaluazioa		2. ebaluazioa		3. ebaluazioa
28	Comentario lingüístico de textos - Resumen. Tema. - Morfología. - Sintaxis. * Comentario de textos de opinión. * Literatura: <i>La casa de Bernarda Alba</i> , de Federico García Lorca.	30	Comentario lingüístico de textos - Tipología textual, ámbito de uso, género textual. - Léxico y semántica (I) * Comentario de textos de opinión. * Literatura: <i>La casa de los espíritus</i> , de Isabel Allende..	25	Comentario lingüístico de textos - Léxico y semántica (II) - Comentario personal sobre un tema. * Comentario de textos de opinión. * Literatura: <i>Poemas escogidos</i> , de A. Machado.

3	IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA
	Ikasleak azalpena jarraitu eta ulertu egin behar du, apunteak hartzen dituen bitartean. Gero, irakurri, ulertu eta kritikoki komentatu testuak ikasi dituen kontzeptuak aplikatuz. Gainera, ikasleak irakasleak agindutako ariketak eta testu iruzkinak egin beharko ditu jarritako epean.

4	BALIABIDEAK
	<ul style="list-style-type: none"> - Apunteak, fotokopiak eta testu mota desberdinak ikasleen laguntzarako. - IKT-ei dagokionez, Alexia Classroom izango da ikasgela birtuala eta bertatik bideratuko dira eduki eta jardura guztiak. Ikasleek bertan izango dute eskura behar duten material guztia (testuak, bideoak, eskemak, material gehigarria eta abar). Fitxategiak PDF formatuan igoko dira eta bideoak URL baten bidez txertatuko dira. Ikasleen lanak orokorrean korreo elektronikoaren bidez jasoko dira. Ikasleen lanerako Drive-ek eskaintzen dituen programa kolaboratiboak erabiliko dira eta ekoizpena testu formatuan (Word edo Google docs) eskatuko zaie. Bestalde, mapa kontzeptualak, eskemak eta infografiak egiteko bestelako baliabideak ere erabiliko dira (Canva, Creately, LucidChart, bubbl-us). Pandemia egoeran Meet eta G-suite komunikazio baliabideak erabiliko dira, biak Alexia Classroomen txertatuak, ikasleek ikasgaia etxetik jarrai dezaten eta material guztia eskura izan dezaten.



5	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK, KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK, EBALUAZTEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK
	<p>EBALUAZIO IRIZPIDEAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ahozko eta ikus-entzunezko testua –esparru akademikoko azalpen-testuak, bereziki– hainbat erabilera-eremutan interpretatzea eta balioestea, eta gizartean betetzen duten eginkizuna aintzat hartzea. - Curriculumeko edukiei buruz ahozko azalpenak egitea. - Ahozko harremanetan aktiboki eta gogoeta eginez parte hartzea, egoki argudiatuz. - Testu idatziak –esparru akademikoko azalpen-testuak bereziki– hainbat erabilera-eremutan interpretatzea eta balioestea, eta gizartean betetzen duten eginkizuna aintzat hartzea. - Hizkuntzalaritzaz, literaturaz eta egungo egoeraz testuak idaztea –esparru akademikoko azalpen testuak bereziki–, hainbat erabilera-eremutan baliatzeko, eta alde zuzenetik prestatutako eskema bati jarraituz. - Hizkuntza-aniztasuna kritikoki interpretatzea, ezagutza soziolinguistikoak erabiliz. - Hizkuntzaren mailen gaineko ezagutzak identifikatzea eta erabiltzea, testuak interpretatzerakoan eta norberaren jarduna arautzerakoan. - Euskaraz eta gaztelaniaz erabiltzen den hizkuntza-terminologia komuna ezagutzea, eta hizkuntzari buruzko gogoeta-jardueretan zuzen erabiltzea. <p>KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK: Egiten diren kontrolek notaren gehiengoa balio dute. Eguneroko ariketetan, ikasleei alde zuzenetik jakinen gainean jarriko zaie zeintzuk izango dira kalifikatuak. Klaseetan parte hartzea kontuan hartuko da.</p> <p>EBALUAZTEKO TRESNAK: Ebaluazio bakoitzean kontrol azterketa bat egingo dugu gutxienez eta beharrezko arabera beste kontrolaren bat egingo da. Ikasleei jasotako bakarkako lanak kalifikatu egingo dira eta kontrolatutako nota igotzeko balioko dute.</p>
6	BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA
	<p>Ebaluazioa jarraia edo etengabea izango da. 1. eta 2. trimestreko azterketan erreperazioz ez da izango. Ebaluazio berriak aurreko azterketa gainditzeko aukera ematen du.</p> <p>3. ebaluazioko azterketa gainditzen ez duenak, 1. deialdiko azterketara aurkeztu beharko du, hau kurtsu osoa izanik.</p> <p>Lehenengo deialdian gainditzen ez dutena, nahiz gai osoa nahiz ebaluazio bakarra izan, hori bera geratuko zaie bigarren deialdirako.</p> <p>Kurtsoko batez besteko nota igo nahi dutenek ekainean egin behar dituzte ebaluazio bakoitzetik aukeratutako gai nagusiak.</p>



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA					KODEA: 013379	2020-21		
ARLOA	Euskal Hizkuntza eta Literatura II					DATA	2020-09-027		
MAILA	DBH 1	DBH 2	DBH 3	DBH 4	BATX 1	BATX 2	X		

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA	
1.– Bizitza sozial eta kulturalako testuinguruetako ahozko diskurtsoak eta diskurtso idatziak ulertzea. Bakoitzaren komunikazio-berezitasunak aintzat hartzea eta haien edukia kritikoki interpretatzea, haiek ulertu ondoren egoera berrietan aplikatzeko.	2.– Ahoz eta idatziz, diskurtso koherenteak, zuzenak eta egokiak erabiltzea, komunikatzeko eta hainbat egoeratarako egokitzeko -esparru akademikoan bereziki-, komunikazio-beharrei modu eraginkorrean erantzun ahal izateko.	3.– Erkidegoko errealitate elebiduna aztertzea eta interpretatzea euskararen normalkuntzaren aldeko jarrera aktiboa garatzeko.
4.– Eleaniztasuna eta kultura-aniztasuna aztertzea eta interpretatzea -soziolinguistikako ezaupideek lagunduta-, haiek dakarten aberastasunaren aurrean begirunea eta jarrera positiboa erakusteko.	5.– Hizkuntzaren erabilera sozialak aztertzea aurreiritziak adierazten dituzten hizkuntza-estereotipoak saihesteko.	6.– Hizkuntzen osagai soziolinguistiko, diskurtsibo eta gramatikalei buruz gogoeta egitea, kontzeptu eta prozedura egokiak erabiliz, testuen ulermena, azterketa eta iruzkinak hobetzeko, eta testu mintzatu nahiz idatziak planifikatzeko, ekoizteko eta zuzentzeko.
7.– Hizkuntzen osagaiei buruz hausnartzea, hizkuntza bakoitzean ikasitakoa beste hizkuntzetara aldatzen laguntzeko.	8.– Literatura-lanak interpretatzea eta kritikoki balioestea, haien arte-izaera osatzen duten elementuak identifikatzea, eta kultura-tradizioarekin eta sortzeko eta jasotzeko gizarte-baldintzekin erlazionatzea.	9.– Euskal literaturaren garai garrantzitsuenen ezaugarri orokorrez gainera, horietako egile eta lanik inportanteenak ezagutzea, literatura-testuak, ahozkoak eta idatziak, ulertzen laguntzeko, eta informazio-iturri egokiak kritikoki erabiliz lan horiek ikasteko.
		10.– Literatura-testuak modu autonomoan irakurri gozatzea, beste mundu eta kultura batzuk ezagutzeko, eta sentsibilitate estetikoak garatzeko.
		11.– Informazio-iturriak eta teknologiak autonomiaz, espiritu kritikoz eta jarrera etikoaz erabiltzea, informazioa bilatzeko, aukeratzeko eta lantzeko, hizkuntza mintzatu eta idatzia bizitza sozial eta kulturalako testuinguruetan eraginkortasunez erabili ahal izateko.
		12.– Hizkuntza eta irakasgai guztietan ikasitako komunikazio-ezagutzak eta -estrategiak erabiltzea, eta norberaren ikasprozesuei buruz gogoeta egitea, ikasteko autonomia garatzeko.

2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA				
	1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa		
25	Diskurtsoen ugaritasuna Hedabide testuak (kazetaritza, publizitate...) Egitura, generoak, ezaugarriak e.a. ahoz nahiz idatziz Literatura diskurtsoa Bertsolari erromantikoak. Hizkuntzari buruzko gogoeta Hizkuntza unitateekin zerikusia duten kontzeptuak sistematizatzea, eta erabiltzea testuak hobeto ulertu eta sortzeko. Baldintzazko eta aginduzko perpausak Hizkuntzaren dimentsio soziala Inguruko hizkuntzekiko ukipen-fenomenoak	25	Diskurtsoen ugaritasuna Eskola eta gizarte esparruko testuak Egitura, generoak, ezaugarriak e.a. ahoz nahiz idatziz Literatura diskurtsoa XX. mende hasierako antzerkia. Hizkuntzari buruzko gogoeta Modalizazioa, deixia. Inpersonaltasuna. Pasibotasuna. Hizkuntzari buruzko gogoeta Hizkuntzak komunitateen nortasunaren bideragarri.	25	Diskurtsoen ugaritasuna Edozein esparrutako testuak Egitura, generoak, ezaugarriak e.a. ahoz nahiz idatziz Literatura diskurtsoa Gerrako pizkundetik gaur egunerako poesia Narratibaren bilakaera, XX. mendean. Hizkuntzari buruzko gogoeta Erregistroak, antolatzaileak. Aditz forma bereziak. Hizkuntzari buruzko gogoeta Euskalki nagusiak identifikatzea. Datu garrantzitsuenak.



3

IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA

Ikasleak egitekoak:

- Irakaslearen azalpenak aktiboki jarraitzea.
- Agintzen zaizkion bakarkako lanak bere kabuz egitea (ahozko nahiz idatzizkoak), horretarako behar duen informazioa bilatuz. Lan horiek arduraz eta agintzen denerako eginak izatea.
- Talde txikitik (2-3 lagun) egin beharreko lanetan arduraz aritzea, ekarpenak egiteko. Lan osoaren erantzule delako jarrera izatea.
- Talde handitan (5-8 lagun) egin beharrekoetan ere ekarpenak egitea, lan osoaren erantzule delako jarreraz.
- Egindako lanetakoren bat hobeto egin dezakeenetan irakasleak esandakoari jarraituz, hura berriro egitea.

Irakasleak egitekoak:

- Beharrezko azalpenak ematea. Ez da testu-libururik erabiliko.
- Ahozko nahiz idatzizko hainbat iturritatik testuak lortzea (egunkariak, irratia, telebistako iragarkiak...) gelan entzun/ikusi/irakurri eta aztertzeo. Azterketa horietatik abiatuz, ereduak eman eta ikasleei berdintsuak eginaraztea.
- Ikasleen lanak zuzentzea, zuzenketari jarraituz irakasleak egindako lana hobeto egiteko jarraibideak izan ditzan.

4

BALIABIDEAK

Ez dago testu-libururik. Testuak eguneroko testu errealeak izango dira (publizitatezkoak, egunkarietan ageri direnak, internetez lor daitezkeenak).

Antzerkia lantzeko, taldetxo bakoitzari antzerki desberdina emango zaio. Bertso eta poesia hautatuak banatuko dira. (Itxialdian geratu beharrez gero, baliteke antzezlanak ezin egin izatea.)

Euskalkien mapak. Ikus-entzunezko materiala.

IKTri dagokienean, Alexia Classroom da ikasgela birtuala eta bertatik bideratzen dira eduki eta jarduera asko. Beharrezko materialak eskura izango dituzte plataforman (testuak, azalpenak, bideoak, material gehigarria eta abar), eta zereginak eta galdetegiak betetzeko ere bitarteko hori erabiltzen da.

Informazioa bildu eta kontsultak egiteko, berriz, web orriak ere erabil ditzakete (Euskaltzaindiaren hiztegiak, bilatzaileak, eta beste hainbat).

Ikasleen lanerako ofimatika programa kolaboratiboak erabiltzeko aukera badago (Drive). Ekoizpena testu formatuan (word edo Google docs), eta aurkezpen formatuan (edozein plataforma, ppt, prezi, google) eskatu ohi zaie.

Bestalde, pandemia egoeran gaudela eta, Meet komunikazio baliabidea erabiltzen da Alexia Classroomen txertatuta, saioak etxetik jarraitu ahal izateko eta material guztia eskura izateko.

5

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK,
KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK, EBALUAZTZEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK**EBALUAZIO IRIZPIDEAK:**

- Ikasleak badakien gai nagusia eta bigarren mailakoak bereizten. Laburpen egokiak egiten dituen. Erregistro egokia erabiltzen duen.
- Badakien bere iritzia ematen arrazoibideetan oinarrituta. Argia eta koherentea den.
- Osagai inplizituak ondorioztatu eta baliatzen dituen. Komunikazio egoeraren ezaugarriak identifikatzen dituen.
- Ea errespetatzen dituen zuzentasun arauak. Saihesten ote dituen ukipen-egoeratik sortutako kalkoak.
- Gelan landutako literatura-mugimenduetako egile eta lanak ezagutzen dituen, eta dagokien testuinguru historiko eta kulturalean interpretatzen badakien.
- Baliatu dituen informazio-iturrietan lortutakoak erabilera sortzailea egiten duen, komeni zaiona bakarrik erabiliz, iturri desberdinetako informazioak elkarren artean konparatu eta osatuz, eta besterik gabeko kopiatze soila egin gabe.
- Sortzen dituen testuek betetzen dituzten agindutako gutxienekoak (komunikazio egoerari egokitzea, genero ezaugarriak, komunikazio asmoa betetzea...)

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK:

Ikasleak egiten dituen lan guztien batez bestekoak osatuko du ebaluazio bakoitzeko notaren laurdena.

Gainerako hiru laurdenak azterketan ateratako kalifikazioa izango dira.

Ikasturte amaieran izango du ikasleak nota igotzeko aukera, urte osoko gaiei buruzko azterketa baten bidez.

Azken notaren biribiltzea irakaslek xedatuko du.

**EBALUATZEKO TRESNAK:**

Ikasleak egin eta irakasleak jasotzen dituen lan guztiak kalifikatuko dira. Ebaluazioko azterketa bakarra izango da, nahiz eta kontrol txikiren bat ere izan daitekeen, lan bakoitzaren balio bera izango duena azken emaitzan. Ebaluazioko notak gorde egiten dira 1. deialdira arte. 2. deialdian, gai osoaren azterketa egin beharko da.

OHARRA: Itxialdian geratu beharra gertatuz gero, aldagarriak izan daitezke ebaluatzeko tresna hauek. Kasuan kasuan adieraziko zaie ikasleei egoera berrian egin den aldaketa.

6

BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA

Ikasleak egin dituen lan guztiak berriro egiteko aukera dauka, eta beti kalifikaziorik onena hartuko da kontuan. Ebaluazio bat berreskuratzeko ez da berreskurapen azterketarik egingo, baina gaindi daiteke hurrengo ebaluazioa gaindituta. Hirugarren ebaluazioa berreskuratzeko 1. deialdia gainditu behar da. 1. eta 2. deialdietako azterketen bidez gaindi daiteke ikasturtea.


PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA					KODEA: 013379	2020-21	
ARLOA	INGELESA					DATA	2020.09.01	
MAILA	DBH 1	DBH 2	DBH 3	DBH 4	BATX 1	BATX 2	x	

1 ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA

- 1.– Hainbat erabilera-eremutako ahozko eta idatzizko diskurtsoak ulertzea.
- 2.– Ahoz eta idatziz, diskurtso koherenteak, zuzenak eta egokiak erabiltzea.
- 3.– Atzerriko hizkuntzaren oinarriko ezaugarri sozialak eta kulturalak ezagutzea eta interpretatzea, hizkuntza eta kultura aniztasunarekiko jarrera positiboa eta begirunea erakusteko.
- 4.– Hizkuntzaren erabilera sozialak aztertzea, gogoeta eta kritika eginez.
- 5.– Hizkuntzak, hainbat jatorri, hizkuntza eta kulturatako pertsonen elkar komunikatzeko eta ulertzeko tresna direla positiboki balioestea.
- 6.– Atzerriko hizkuntzaren osagai soziolinguistiko, diskurtsibo eta gramatikalen gainean gogoeta egitea, kontzeptu eta prozedura egokiak erabiliz, ahozko testuak eta testu idatziak hobeto ulertzeko eta ekoizteko.
- 7.– Arte- eta literatura-testuak gero eta modu autonomoagoan irakurriz gozatzea, beste mundu eta kultura batzuk ezagutzeko, eta sentsibiltate estetikoa garatzeko.
- 8.– Teknologia eta informazio-iturriak autonomiarekin, espiritu kritikoarekin eta jarrera etikoarekin erabiltzea, informazioa bilatzeko, aukeratzeko eta lantzeko.
- 9.– Hizkuntza eta irakasgai guztietan ikasitako komunikazio ezagutzak eta estrategiak erabiltzea, hizkuntzen arteko transferentzia bultzatzeko eta ikasteko autonomia garatzeko.



2 EDUKIEN DENBORALIZAZIOA					
1. ebaluazioa		2. ebaluazioa		3. ebaluazioa	
5 10 10 saio	0. Getting Started	15 15 saio	3. That's Entertainment	10 10 saio	5. Law and Order
	1. Going Places		4. World of Work		6. Living Green
	2. A Healthy Future				

Horiek dira landuko diren 7 unitate didaktikoak. Bakoitzean 5 multzo jorratuko dira:

1. Listening and Speaking. Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta solasean aritzea.
2. Reading and Writing. Diskurtsoen ugaritasuna: irakurtzea eta idaztea.

	1.ebal.	2.ebal.	3.ebal.
Reading	0. A Blog 1. Star for a Day 2. A Feature Article	3. An Interview 4. A Short Story	5. An Online Magazine 6. A Report
Writing	- PAU proposals - Unit 2. <u>An opinion essay</u> - Unit 1. A description of a place	- <u>A narrative</u> - Unit 4. A formal letter or e-mail - Unit 3. A film /book review	- Unit 5. <u>A for and against essay</u> - Unit 6. A summary

3. Literatura-diskurtsoa. 2. eta 3. hiruhilabeteetan bereziki errefortzatu egingo da, ikasleek ingelesez sortutako obra literario egokitu bat irakurriko dute-eta.
4. Use of English: Grammar and Vocabulary. Hizkuntzari buruzko gogoeta.

	1.ebal.	2.ebal.	3.ebal.
Grammar	0. Verb tenses review 1. Present perf. cont. & past perf. cont. 2. Conditionals & Time & Wish clauses	3. Passive & Causative 4. Relative clauses (defining and non-defining)	5. Modal and Modal Perfect verbs 6. Reported Speech
Vocabulary	1. Travel Compound Adjectives Prepositional Phrases 2. Medicine Nouns and Prepositions Phrasal Verbs	3. Films Collocations Gerunds & Infinitives 4. Work & Jobs Pronouns Common Expressions	5. Law & Order Phrasal Verbs Idioms 6. The Environment Vbs and Prepositions Binomial Expressions

5. Civilization. Hizkuntzaren dimentsio soziala.



3 IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA

Unitate didaktiko guztiek egitura berdina dute (“Review” edo 0 unitateak salbu):

- Sarrera-motibazio iharduerak
- Ikasketa prozesuaren garapenerako iharduerak: Reading, Vocabulary, Grammar, Listening and Speaking skills, Writing, Life skills
- Ikas prozesua norberak garatzeko edo eta norberaren ebaluaziorako ariketak: Workbook exercises.

Irakasleak material digitala erabiliko du gelan euskarri bezala. Ikasgelak horretarako egokituta daude, proiektorea bertan izanik.

Ikasleek talde handian, txikian (2-4 ikasle) nahiz banaka egingo dute lan.

4 BALIABIDEAK

Eguneroko lanerako **Advantage 2** (*Burlington*) metodoa erabiltzen dugu. Metodo honek material inprimatua eta digitala konbinatzen ditu, eta hau bereziki efikaza bihurtu zen 2019-20 ikasturtearen bukaeratik, pandemiak bultzatuta etxean lan egiteko modu egokia izanik.

- Gelan liburu digitalak (*Student's Book & Workbook*) proiektatzen dira pantallan. Ikasleak paperean daukan guztiaren bertsio digitala dira. Horrek presentazio teorikoak, ariketa guztien zuzenketak, entzuketak eta beste gehigarri asko barneratzen ditu, hala nola:

Vocabulary presentations & practice

Grammar tutor & practice

Integrated videos & slideshows (communication videos, culture videos, info videos, life skills...)

- Ikasleek gelan *Student's Book* eta *Workbook* liburu fisikoak izango dizutze. Etxean, gainera Interactive Student delako baliabide digitala erabil dezakete, gelako lana osatuz. Honoko tresnak dira erabilgarri:

Flipped Classroom: klasean azalduko den teoria (Vocabulary & Grammar sailak) aurrez ikusteko aukera ematen die, edota klasean azaldu ondoren etxean errepasatzeko.

Extra Practice: sendotze ariketa gehigarriak (vocabulary practice, wordlists and activities & grammar practice)

Extra Resources: listening practice, Grammar Bank (gramatika laburpen sintesiak) & videos.

Interactive Student, <https://webbook.burlingtonbooks.com> weborrian dute eskuragarri (ikasturte hasieran sartutako kodearen bidez bakarrik).

- Irakasleari ere LMS (Learning Management System) edo ikasleen jarraipena egiteko aukera ematen dio *Advantagek*. Konfinamendu osoko egoeratan erabilgarri bilaka daiteke.

(2020-21 ikasturte honetan, eta salbuespen egoera dela-eta, Burlington argitaletxeak ikasle guztientzat doan jarri ditu *Advantage 2 Student's Book* zein *Workbook* liburu inprimatuen bertsio digital osoak. Honek asko erreztuko du ikasle kofinatuen egoera, klasera huts egingo duten ikasleena edota errepasso indibiduala behar dutenena...)

Bestelako zenbait material ere aipatu behar ditugu: Oiertzo English Mintegian sortutako apunte-ariketa bilduma (**Photocopy Book 2**), Unibertsitatera sartzeko **hautafrogetako testu eta azterketak** (EHUkoak nahiz kanpokoak), bi **irakurgai** (ikasleen hizkuntza mailara egokitutako ingeles literaturako bi obra), **filmeak** (bi urtean), **abestiak** eta beste.

Amaitzeko, **Alexia Classroom** plataforman material osagarrien atal handi bat eskura izango dute, hots, *Advantage 2* izan ezik beste guztia. Bertan txertatua, Meet erabiliko da konfinatutako ikasleek klase saioak etxetik jarraitu ahal izateko.


5 EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK, EBALUAZTEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK, KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

Ebaluazio irizpideak:

1. Ahozko eta ikus-entzunezko testuak ulertzea.
2. Ahozko aurkezpenak egitea.
3. Ahozko harremanetan parte hartzea.
4. Testu idatzi konplexuetako ideia orokorra eta hainbat informazio ulertzea.
5. Plangintza bati jarraituz testu idatziak ekoiztea.
6. Hizkuntza-aniztasuna kritikoki interpretatzea, ezagutza soziolinguistikoak erabiliz.
7. Era guztietako komunikazio-egoeretan esamolde eta balioespen diskriminatzaileak saihestea.
8. Hizkuntza-ezagutzak gogoeta eginez eta modu autonomoan identifikatzea eta erabiltzea, testuak interpretatu eta ekoiztean.
9. Literatura, gozatzeko eta ikasteko erabiltzea.
10. Hedabideak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu autonomoan, eraginkortasunez eta espiritu kritikoarekin erabiltzea.
11. Hizkuntza guztietan burututako ikasprozesuen gainean gogoeta egitea.

Bildumako ebaluazioan erabiliko diren tresnak anitzak izango dira:

- Hiruhilabete bukaerako azterketa
- Etxerako eguneroko lan idatziak: Workbookeko ariketak, Student's Bookeko ariketak, ahozkoak prestatzea, informazioa bilatzea... Etxeko lanak egin gabe etortzea penalizatu egingo da.
- Bi idazlan gutxienez hiruhilabete bakoitzean, epe barruan entregatuak eta gelan argitutako irizpideen arabera eginak.
- Irakurritako obra literarioari buruzko azterketatxoa (2. eta 3. hiruhilabetean)
- Gelako lan-produkzioa eta jarrera.

Kalifikazio irizpideak: Ebaluazioa etengabea eta jarraia da. Hori dela eta, lehen aipatutako tresna guztiak erabiliko dira. Ez da azterketen errekupeziorekin izango: hurrengo azterketak aurrekoa gainditzeko aukera emango du.

Ikasturte amaierako notan, aurreko ebaluazioetan lortutako notak kontuan hartuko dira, eta batez bestekoari erreparatuko zaio, kurtsoan zehar izandako lan-ekoizpena eta jarrera ahaztu gabe. Beraz, 3. ebaluazioko nota ezin da automatikoki bukaerako notarekin identifikatu. Irakaslearen esku geratzen da kurtso amaierako batez besteko notaren xedapena.

Ikasturteko nota igo nahi izanez gero (aprobatua izanda, noski), 1. deialdiko azterketa finalera aurkezteko aukera du nahi duenak.

(Ikus ikasleei banatzen zaien dokumentua, bertan aipatzen dira irizpide eta tresna hauei buruzko zehaztasun gehiago).

6 BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA

Bildumako ebaluazioa jarraia edo etengabea izango da. 1. eta 2. trimestreko azterketan errekupeziorekin ez da izango. Ebaluazio berriak aurreko azterketa gainditzeko aukera ematen du.

3. ebaluazioko azterketa gainditzen ez duenak, 1. deialdiko azterketara aurkeztu beharko du, hau kurtso osokoa izanik.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAIL10:37:13**
Hezkuntzako Ikuskaritza

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**
Inspección de Educación



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA					KODEA: 013379	2020-2021		
ARLOA	FILOSOFIAREN HISTORIA					DATA		2020-07-02	
MAILA	DBH 1	DBH 2	DBH 3	DBH 4	BATX 1	BATX 2	X		

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA
	<p>1. Hautapropa azterketarako proposatzen diren sistema filosofiko eta autoreak ezagutzea eta planteatu zireneko historia, gizarte eta kultur testuinguruarekin lotzea, haien adierazpen baitira.</p> <p>2. Testuetako arazo filosofikoak identifikatzea eta erabiltzen den terminologia ezagutzea .</p> <p>3. Sistema filosofiko ezberdinen artean dauden harremanak ulertzea eta horien arteko antzekotasunak, ezberdintasunak eta eraginak identifikatzea.</p> <p>4. Besteen iritziekiko jasankortasun eta errespetuzko jarrera garatzea, aniztasun ideologiko eta kulturalaren alderdi positiboaz jabetuz.</p> <p>5. Hautaprobak eskatzen duena garatzeko gaitasuna lortzea: testu-analisia, disertazioa, balorazio kritikoa eta beste egile zein gizarte batzuekiko harremanak.</p> <p>Oinarrizko gaitasunak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ikasten ikasteko gaitasuna. - Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna. - Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna. - Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna. - Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.

2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA		
	1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
1	AINTZINAKO FILOSOFIA: Sokrates, sofistak, Platon , Aristoteles "Errepublikak VII. Kap." aren irakurketa gidatua	2 Hiponako Agustin eta "Bizitza zoriontsuaz" II. Atalaren irakurketa gidatua. (jarraipena).	4 XIX. MENDEKO FILOSOFIA: Marx eta Nietzscheren pentsamendua landu. <i>Ecce Homo. "Zergatik naiz patu bat"</i> lanaren irakurketa gidatua.
2	ERDI AROKO FILOSOFIA: Hiponako Agustinen eta Akinoko Tomasen pentsamendua lantzen hasi.	3 FILOSOFIA MODERNOA: Errenazimendua eta iraultza zientifikoa, arrazionalistak, (Descartes), empiristak (Locke, Hume). Ilustrazioa eta Kanten idealismo transzendental. "Zer da Ilustrazioa? galderari erantzuna" lanaren irakurketa gidatua.	5 XX. MENDEKO FILOSOFIA Ortega eta Gasseten pentsamendua. "Usteak eta sinesteak" lanaren irakurketa gidatua. Habermas.
		4 XIX. MENDEKO FILOSOFIA: Marx eta Nietzscheren pentsamendua landu.	

3	IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA
	<ul style="list-style-type: none"> - Azalpen teorikoak: Testuinguratzeko historikoa, kontzeptuen azalpena, ikuspegi filosofikoak, gainontzeko pentsalarietarako harremanak eta gaur egungo munduarekin loturak. - Irakurketa komentatua: Testuek duten konplexutasun kontzeptual eta ulertzeko zailtasunagatik. - Testu-analisiak, laburpenak, disertazioak eta egileen planteamenduen balorazio pertsonalak egingo dituzte ikasleek. - Baloratu eta sustatuko da ikaslearen parte hartze aktiboa.

4	BALIABIDEAK
	<p>Ibaizabal argitaletxeko Filosofiaren Historiako liburua.</p> <p>IKT-ei dagokionean: Alexia Classroom izango da ikasgela birtuala eta bertatik bideratuko da ikasgaia prestatzeko beharrezkoa den guztia: programak, edukiak, testu iruzkinak egiteko aholkuak, jarduerak,...</p> <p>Informazioa biltzeko web orriak, Youtube, bilatzaileak, filmak ... erabiliko dituzte ikasleek.</p> <p>Pandemia egoeran, Alexian txertatuta , Meet komunikazio baliabidea erabiliko da, saioak jarraitu ahal izateko etxetik.</p>



5	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK, EBALUATZEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK, KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK
<p>Ebaluazio irizpideak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Testu filosofiko baten zentzua bere testuinguru historiko, sozial eta kulturalean kokatzea, eta norberaren hitzez eta argudioz arrazoitzea testuaren zentzua. - Beste filosofo batzuen pentsamoldearekin konparatuta iruzkintzea testu baten edukia, eta haren ideia nagusiak laburtzea. Testuan erabilitako kontzeptu eta termino espezifikoa aztertzea eta iruzkin kritiko pertsonala egitea. - Landutako gai filosofikoei buruz egindako ulertze eta hausnartze lanaren emaitza argi eta koherentziaz idaztea. - Besteen iritzien, jarrera filosofikoen edo sinesmenen aniztasuna errespetatzea, eta hori guztia norberaren ikuspuntuak aberasteko, argitzeko eta probatzeko modutzat hartzea. <p>Kalifikazio irizpideak Hautaprobaren eredura hurbilduko da ebaluatzekeo tresna ikasturteak aurrera egin ahala. Ikasgelan egindako lana.</p> <p>Ebaluatzekeo tresna</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ebaluazioro azterketa bat egingo da. Azterketak notaren %70 balioko du. - Ikasleak gaiarekiko duen jarrera eta klasean egiten duen lana kontuan hartuko da: notaren % 30 balioko du. 	
6	BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA :
<p>Azterketa gainditu ez duen ikasleari gaia lantzeko behar duen laguntza eskainiko zaio:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kontzeptuak eta ideiak ulertzeko behar dituen azalpenak jolas garaietan emango zaizkio (eskatzen baldin baditu) - Errekuperatzeko azterketa egingo du. - Nota igotzeko aukera izango da berreskurapenean. Nota igotzeko egindako azterketaren balioa %80koa izango da eta beste %20a jatorrizko notarena izango da. 	



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA					KODEA: 013379	2020-21		
ARLOA	ESPAINIAKO HISTORIA					DATA	2020/09/07		
MAILA	DBH 1	DBH 2	DBH 3	DBH 4	BATX 1	BATX 2	x		

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA
	<p>1.- Espainiaren eta Euskal Herriaren historia-bilakaeran izandako gertaera, prozesu eta protagonista gehienak identifikatzea, aztertzea eta azaltzea, denboran eta espazioan kokatuta, bi errealitate historiko horien egungo osieran duten eragina ikusteko.</p> <p>2.-Espainiako eta Euskal Herriko historia garaikidea osatzen duten prozesu garrantzitsuenak jakitea; eta horretarako gertaera politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen arteko erlazioak identifikatzea, aurrekariak eta parte hartu duten faktoreak ulertzeko.</p> <p>3.- Oinarrizko kontzeptu eta termino historikoak ondo erabiltzea, ikasitako prozesu historikoak ulertzeko.</p> <p>4.- Informazio iturri desberdinak erabiltzea eta irakurtzen jakitea(interpretatzea, bere testuinguruan ezartzea eta ondorioak ateratzea).</p> <p>5.- Kontzientzia kritikoa, arduratsua eta aktiboa garatzea.</p> <p>6.- Egungo gizartearen ezaugarrien, gatazken eta erronken sustrai historikoak ezagutzea, eta aintzat hartzea gizabanakoek eta taldeek bizi- baldintzak hobetzea lortzeko , sistema demokratikoa eratzeko eta gizonen eta emakumeen berdintasuna erdiesteko egindako borrokak.</p> <p>7.- Egungo euskal gizartearen irudi aniztun eta integratzailea eraikitzea, eta Euskal Herriaren bilakaera historikoan ikuspegi orokorra eskuratzea, haren barne- heterogenotasuna ikus dadin; eta, era berean, agerian gera dadin nolako harremanak izan diren, denboran zehar, lurralde guztien artean eta inguruan dituen herri eta errealitate historikoekin.</p>

2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA				
	1. ebaluazioa		2. ebaluazioa		3. ebaluazioa
32	Sarrera: Espainia eta Euskal Herria XVIII. mendean. 1.- Cadizko gorteak eta 1812ko konstituzioa. 2.- Estatu Liberalaren eraikuntza(1834-1874). 3.-. Errestaurazioko sistema politikoa eta bere bilakaera 1931 arte.	38	3.-. Errestaurazioko sistema politikoa eta bere bilakaera 1931 arte. 4.- Industrializazioa, langile mugimendua eta nazionalismoa. 5.- Bigarren Errepublika: 1931ko konstituzioa eta erreformak.	30	6.- Gerra zibila(1936-39) 7.- Frankismoa eta bere bilakaera. 8.- Trantsizio politikoa: 1978ko konstituzioa, 1979ko Autonomia Estatutua. 9.- Demokrazia garaia: ikuspegi orokorra.

3	IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA
	<p>-Ikasturte hasieran irakasleak apunteak banatuko ditu eta horietan oinarrituta esplikazioak emango ditu gai bakoitzean zehar. Ideia nagusiak lantzeko baliabide desberdinak erabiliko ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Apunteak, modu laburtuan Drive aurkezpenen bidez azalduko dira ikasgelan. • Teoriarekin batera bakarkako lanak eskatuko zaizkie eta irakasleak baloratu egingo ditu. • Klaseko azalpenak osatzeko, bestelako materialak erabiliko dira, bideoak, egunkarietako artikulak, pelikulak etab. • Guzti hau Alexia Classroom plataforman egongo da exekita.



4	BALIABIDEAK
<p>-Ez dugu testu-libururik erabiltzen, irakasleak banatutako apunteak baizik.</p> <p>-IKT-ei dagokionean, Alexia Classroom izango da ikasgela birtuala eta bertatik bideratuko dira eduki eta jarduera guztiak .</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikasmaterial guztia eskura izango dute plataforman (testuak, gelako apunteak, bideoak, material gehigarria eta abar). Indagaziorako eta informazioa biltzeko web orriak erabiliko dituzte (Youtube, bilatzaileak, egunkarien web orriak; Ahotsak https://ahotsak.eus/gaiak/0803/ , Artehistoria https://www.artehistoria.com/es/content/historia-de-espan%CC%83a eta abar). • Ikasleen lanerako ofimatika programa kolaboratiboak erbiliko dira (Drive). Ekoizpena testu formatuan (word edo Google docs), eta aurkezpen formatuan (edozein plataforma, ppt, prezi, google) eskatuko zaie. Mapa kontzeptualak egiteko baliabideak ere erabiliko dira (Canva, Lucidchart esaterako). • Pandemia egoeran Meet eta G-suite komunikazio baliabideak etabiliko dira, Alexia Classroomen txertatuta, saioak jarraitu ahal izateko etxetik eta material guztia eskura izateko. • Hau da ikasgela birtualaren helbidea Alexia Classroom plataforman: https://oiartzo.alexiaclassroom.com/course/view.php?id=208&section=1 	

5	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK, KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK, EBALUAZTZEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK
<p>EBALUAZIO IRIZPIDEAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> .- Ea kokatzen dituen Euskal Herriaren eta Espainiaren Historiako garai nagusiak denboran, bai eta haietako bakoitzean barruan dauden aldiak ere. .- Ikasleak badakien garai eta aldi bakoitzaren ezaugarriak aztertzen. .- Ea identifikatzen dituen garai edo aldi bakoitzaren barruan, gertaera eta pertsonaia garrantzitsuenak. .- Ikasleak ea badakien bereizten garai bakoitzaren ezaugarri ekonomiko, sozial, politiko eta kulturalak. .- Ea kontzeptu eta termino nagusiak ondo erabiltzen dituen bere azalpenetan, ondo kokatzen dituen, eta garaiarekin erlazionatzen dituen. .- Ea ulertzen duen iturrien edukia. .- Ea erlazionatzen duen iraganaz ikasitakoa egungo gizartearekin. .- Konzientzia kritikoa garatzeko gaitasuna izatea. <p>KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> .- Ebaluazioko nota ikasleak egiten dituen lan guztien bataz bestekoa izango da; testu iruzkina eta ebaluazio azterketa. Guztietan minimoa atera beharko da, batezbestekoa egiteko. .-Testu iruzkinetan, ebaluazio bakoitzean, derrigorrezkoa izango da, irakasleak adierazten duen testu iruzkina egitea. Honek, gehienez puntu bateko balioa izango du. Egin ezean, ebaluazio azterketa gainditu badu ere, eta bataz bestekoak gainditutzat ematen badio ere, ez da ikasgaia gaindituko. .-Gainerako testu iruzkinak, bolondresak izango dira, irakasleak adieraziko du, testu iruzkina bolondresa den edo ez. Hauen kalifikazioa, egiten diren bolondres horien arteko emaitza eta ikasleak berak ikasgelan, ebaluazioan zehar adierazi eta erakutsi duen lan egiteko jarreraren arabera izango da, beti ere, gehienezko puntu bat lor dezakeelarik. .- Nota igotzeko aukera egongo da ebaluazio guztietan. .-Ebaluazioan zehar, bestelako ariketak ere egin daitezke. Hauek ebaluazio amaieran irakasleak kontsideratzen duen ponderazioa izango du. .-Ebaluazio azterketak, batezbesteko nota osotik 8 puntu balioko ditu. Testu iruzkin eta galdera teorikoan minimoa lortu beharko da gainditzeko. <p>EBALUATZEKO TRESNAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> .-Ebaluazioan azterketa bakarra egingo da eta bertan ateratako notari bestelako lanetan ateratako nota gehituko zaio. .-Kalifikatzeko, ebaluazio irizpideetan azaldutako parametroak erabiliko dira. 	



Ebaluazio bakoitzaren ondoren, errekerazio azterketa bat egingo da aurreko azterketako irizpide berdinak erabiliz.



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA					KODEA: 013379	2020-21		
ARLOA	LATINA II					DATA 2020-09-07			
MAILA	DBH 1	DBH 2	DBH 3	DBH 4	BATX 1	BATX 2	X		

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA
	<p>-Latinaren oinarri fonetikoak, morfologikoak, sintaktikoak eta lexikalak jakitea eta zuzen erabiltzea, testuak aztertzeke, itzultzeke eta interpretatzeko.</p> <p>-Latinaren hizkuntza-egiturei buruz hausnartzea, latina hizkuntza malgukariaren eredu baita, eta ikasleek egitura horiek eurek erabiltzen dituzten hizkuntzen egiturekin alderatzea; hartara, norberaren hizkuntza hobeto ulertu eta erabiliko dute, eta errazago hurbilduko dira ezagutzen dituzten beste hizkuntzetara.</p> <p>-Latinezko testu eta esaldi laburrak (hitz lauzkoak eta gai askotarikoak, bereziki) aztertzea, itzultzea eta iruzkintzea.</p> <p>-Mundu erromatarraren garapen historikoaren aldi nagusiak kokatzea, eta, konkistatutako lurraldeetan, – bereziki, Hispanian–, erromatartze-prozesuak eragindako aldaketak ezagutzea; baita prozesu horrek egungo Euskal Herrian lurraldean zer ezaugarri izan zituen jakitea ere.</p> <p>-Mota guztietako informazio-iturriak erabiliz –bibliografiak, ikus-entzunezkoak, museoak, arkeologia-aztarnategiak, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak... – informazioa bilatzea, hura baliatzea eta kritikoki aztertzea; hain zuzen ere, zibilizazio erromatarraren zenbait alderdiri buruz datu adierazgarriak lortzeko, eta zibilizazioa horrek historian zehar izandako presentzia egiaztatzeke.</p>

2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA		
	1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
37	<p>-Morfosintaxia.</p> <p>-Itzulpena:</p> <p>-Zesar</p> <p>-Pars I: Familia romana</p> <p>Pars II: Roma aeterna</p> <p>-De viris illustribus</p> <p>-Literatura Latina: 1, 2 gaiak.</p> <p>-Aforismoak/Lokuzio latinoak.</p>	38	<p>-Lexiko eta Fonetika.</p> <p>-Itzulpena:</p> <p>-Zesar</p> <p>-Pars I: Familia romana</p> <p>Pars II: Roma aeterna</p> <p>-De viris illustribus</p> <p>-Literatura Latina: 3, 4 gaiak.</p> <p>-Aforismoak/Lokuzio latinoak.</p>
		30	<p>-Lexiko eta Fonetika.</p> <p>-Itzulpena:</p> <p>-Zesar</p> <p>-Pars I: Familia romana</p> <p>Pars II: Roma aeterna</p> <p>-De viris illustribus</p> <p>Literatura Latina: 5. gaia.</p> <p>-Irakurketa: <i>Miles gloriosus</i>, Plautorena.</p>

3	IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA
	<p>-Morfosintaxiaren azalpena egin eta gero, ikasleak itzulpenak egin beharko ditu, klasean eta etxeko-lan bezala, hiztegiarekin.</p> <p>-Etimologia landu, Latinetik Euskarara eta Gaztelerara eman den bilakaera ezagutzeko.</p> <p>-Baita ere, Literatura Latinoa ikasi (jenero eta idazle garrantzitsuenak) eta obra bat irakurri.</p>

4	BALIABIDEAK
	<p>-Irakasleak sortutako hainbat ariketa orri (testuak itzultzeke) eta apunte.</p> <p>-Kontsultarako, ikastolan dauden testu liburuak erabiliko ditu ikasleak eta hiztegia.</p> <p>- IKT-ei dagokionez, Alexia Classroom izango da erabiliko den ikasgela birtuala eta bertatik bideratuko dira jarduera eta eduki guztiak. Ikasleek behar duten material guztia eskura izango dute aipatutako plataforman (testuak, apunte eta eskemak, material gehigarria eta abar). Fitxategiak PDF formatuan zintzilikatuko dira. Ikasleen lanak korreo elektronikoaren bidez jasoko dira.</p> <p>Ikasleen lanerako Drive-ek eskaintzen dituen programa kolaboratiboak erabiliko dira eta ekoizpena testu formatuan (Word edo Google docs) eskatuko zaie. Horrez gain, eskuz aztertutako testuak irakasleari entregatzeko aukera izango dute. Horretarako, gailu elektroniko beten bidez argazki bat atera eta JPG</p>



formatuan plataformara igotzeko aukera izango dute edo Drive-en bidez eskaneatu eta igotzeko aukera. Pandemia egoeran Meet eta G-suite komunikazio baliabideak erabiliko dira, biak Alexia Classroomen txertatuak, ikasleek saioa etxetik jarraitzeko aukera izan dezaten eta material guztia eskura izan dezate.

ARGITALETXEA:



5	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK, KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK, EBALUATZEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK
	<p>EBALUAZIO IRIZPIDEAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Latinezko jatorrizko testuetan identifikatzea eta aztertzea haien interpretaziorako ezinbestekoak diren morfologiako eta kasu- zein perpaus- sintaxiko elementuak. -Gero eta zailtasun handiagoko testuak itzultzea hiztegiarekin, hitz lauzkoak bereziki. -Latinaren lexikoa gaztelaniaren eta euskararen lexikoekin erkatzea, haien osagaiak identifikatzea eta esanahi etimologikoa ondorioztatzea. -Zenbait generotako testu itzuliak irakurtzea eta iruzkintzea, haien funtsezko literatura-ezaugarriak identifikatzea, eta latinezko literaturak Mendebaldeko literaturen eredu gisa betetako eginkizuna aitortzea. <p>KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Ebaluazioko azterketan, analisi morfosintaktikoa eta itzulpena egitea, hiztegiarekin, ikasleari eskatuko zaio. Eta beste zenbait galderei erantzun zuzena ematea (morfologia, sintaxia, lexikoa, fonetika, literatura latina, aforismoak,...). -Azterketak: ebaluazioan zehar kontrolak egingo zaizkie, bai teorikoak eta baita praktikoak ere. Ebaluazioko notan kontrolak kontuan hartuko dira, klasean egindako lana eta etxera bidalitakoa. Normalean, talde txikiak direnez kontrol pertsonalizatua eramatea erraza izaten da. -Ebaluazioko izango du ikasleak nota igotzeko aukera, errekuperazio azterketara aurkeztuz. <p>EBALUATZEKO TRESNAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Irakasleak jasotzen dituen lan guztiak kalifikatuko dira. Ebaluazioko azterketa bakarra izango da, nahiz eta kontrolen bat ere izan daitekeen, azkeneko honek %20a edo %40 balio izan kontrol bakoitzean sartzen den materia kantitatearen arabera. -Ebaluazioko notak gorde egiten dira 2. deialdi arte.
6	BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA
	<ul style="list-style-type: none"> -Ikasleak egin dituen lan guztiak berriro egiteko aukera dauka beti, eta beti kalifikaziorik onena hartuko da kontuan. -Berreskurapenak azterketen bidez egiten dira. Ikasleak gainditu ez duen atala/atalak berreskuratu beharko du/ditu.



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA					KODEA: 013379	2020-21		
ARLOA	ARTEAREN HISTORIA					DATA	2020-06-02		
MAILA	DBH 1	DBH 2	DBH 3	DBH 4	BATX 1	BATX 2	X		

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA
	<p>-Sormen artistikoaren inguruko ahozko nahiz idatzizko azalpenetan eta eztabaidetan parte hartu, norberaren gustu pertsonala eta jarrera kritikoa garatuz.</p> <p>-Artelanak euren osotasunean baloratu, eta giza sormenaren adierazle gisa kontsideratu, gozamenerako eta garai eta kultura jakin baten testigantza gisa baloratuz.</p> <p>-Artearen Historiaren garai eta estilo ezberdinen artelan esanguratsuenak identifikatu, eta ondorengo garaietan izandako eragina edo iraupena aztertu, gertuko arteari arreta berezia eskainiz.</p> <p>-Arte diziplina ezberdinen kontzeptu, lengoia eta teknikak ezagutu, eta artelanen deskripzioan, azterketan eta interpretazioan modu argi eta zehatz batez erabili.</p> <p>-Ondare artistikoa ezagutu eta zaintzearen beharraz jabetu.</p> <p>-Elkarlanean ikasten ikasi: apunteak, aurkezpenak, infografiak...landuz.</p> <p>-Bilerak eta Ko-ebaluazioak burutu, ikasitakoa ondorioztatuz eta landutakoari jarraipena emanez.</p>

2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA		
	1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
<p>Apunteak: Arloaren euskarri nagusia, liburu ezberdinetatik jasotako apuntetan oinarritua dago.</p> <p>Testu liburuak: Testu liburu bat baino gehiago erabili ditut apunteak osatzeko. Horien artean: <i>Marrazketa Geometrikoa</i> eta <i>Geometria Deskribatzailea</i> barne, <i>Marrazketa Sistema diedrikoan</i> (F. Javier Rodriguez de Abajo eta Roboerto Galarraga), <i>Logse Batxilergoa-Marrazketa Teknikoa</i> (Anaya), <i>Marrazketa Teknikoa</i> (Erein) , daude.</p> <p>Internet: Arbela digitalaren laguntzaz interneten dauden baliabideak (web-orriak, animazioak, bideoak) gaietan sakontzeko erabiliko dira.</p> <p>Alexia Classroom (moodle): plataforma honetan apunteak web orri gisa zintzilikatuta daude, honek ematen duen aukerak aprobetxatu nahian (geogebra appletak, bideoak, aurkezpen dinamikoak eta abar txertatzea, adibidez).</p> <p>Programa informatikoak: Erregela eta ohiko tresnak aparte, ordenagailua ere zenbait ariketa egiteko erabiliko dute, Geogebra erabiliz.</p> <p>Google Meet bitartez konfinatuta dauden ikasleekin komunikatu eta klaseak emango zaizkie, Alexia Classroom ezagutzak transmititzeko ardatz hartuta.</p>	
5	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK, EBALUAZTZEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK, KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK
<p>Ebaluazio-irizpideak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Irakasgaiari dagozkion lexiko eta terminologia, tresnak eta prozedurak erabiltzen jakitea. • Ariketetan eta lan-proiektuetan akabera ona eta aurkezpen egokia lortzea. • Formak konfiguratzekeo problemak aztertzea eta grafikoki ebaztea. • Adierazpide-sistema garrantzitsuenek komunikaziorako eta analisirako dituzten aukerak bereiztea eta bakoitza apropos diren gauzetarako era egokian erabili. • Espazioan forma eta gorputz artean sortzen diren erlazioak (ebakidurak, paralelotasuna, perpendikularitasuna, distantziak eta angeluak) antzematea eta adierazten jakitea. • Ikuskera espaziala erabiltzeko gaitasuna erakustea, hiru dimentsioko objektuak adieraziz, perspektiba axonometriko mota desberdinetan marraztuta. • Pieza eta elementuen sorketan gorputz trinkoek eta gainazalek duten garrantziaz jabetzea eta hauek eraikitzen jakitea. • Krokisak, zirriborroak eta apunteak erabiltzea lan-prozesuetan alternatibak eta soluzioak bilatzeko. • Lan-proiektu bat garatzea proiektuaren helburuen arabera, eta prozedura egokia ondo zehaztea. • Informatikako baliabideak adierazpide-tresna egokitzen hartzea eta ariketak programa informatikoen bitartez burutzea. <p>Kalifikazio-irizpideak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ebaluazioaren azterketan selektibitateko ariketak eta ebaluazioan zehar eman diren gaien ariketak jarriko dira. • Astero selektibitateko ariketak klasean egin eta kalifikatuko dira. Selektibitatearen ariketen mota bakoitzaren notaren batez bestekoa 6 edo gehiago bada, azterketaren zati hori liberatzen da. • Lehenengo ebaluazioan plano aldaketari buruz kontrol bat egingo da. Errepikatu behar izango dute gaintitu arte. • Astean behin etxeko-lanak bidaliko dira eta nota igotzeko balio izango dute. • Talde-lanak eta proiektuak ere kalifikatu egingo dira. <p>Ohiko eta ezohiko ebaluaketak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ohiko ebaluaketan talde eta banako-lanak kontuan hartuko dira, baita klasean egindako "ikerketa" lanak ere. • Ezohiko ebaluaketan azterketa izango da kalifikatzeko erabiliko den gauza bakarra. 	
6	BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA
<ul style="list-style-type: none"> • 1. eta 2. ebaluazioetan gaiak berrikusteko ariketak emango eta azalduko zaizkie, horrela errekupeziorako prestatuko dira. • 3. ebaluazioa errekupeziorako azterketa egingo dute. 	



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA					KODEA: 013379	2019 - 2020		
ARLOA	MATEMATIKA II					DATA		19-09-05	
MAILA	DBH 1	DBH 2	DBH 3	DBH 4	BATX 1	BATX 2	X		

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA
<p>1.- Errealitate sozialari eta matematikari berari buruzko problemak proposatzea, hipotesiak egiten, hainbat estrategia aukeratzen eta erabiltzen, ebazpen-prozesua arrazoitzen, emaitzak interpretatzen eta justifikatzen eta haiek egoera berrietan aplikatzen, eraginkortasun handiagoz egungo gizarteko erronkei aurre egiteko.</p> <p>2.- Eredu teorikoak (algebraikoak, funtzionalak, estatistikoak eta probabilitatekoak) eta haiei buruzko edukia erabiltzea, matematika aplikatzen gizarte-zientzien esparruko gertakariak analizatzeko, interpretatzeko eta iragartzeko.</p> <p>3.- Zentzuzko diskurtsoa erabiltzea egoera problematikoei buruzko irizpenak eta erabakiak hartzen, eta, horretarako, prozedurak justifikatzen, argudioak zuzen lotzen, norberaren arrazoibideak zehatzak izaten eta besterenak kritikoki analizatzen, jarrera malgu, ireki eta kritikoa izateko.</p> <p>4.- Matematika-hizkuntzaren eta -adierazpenaren berezko tresnak (zenbakiak, taulak, grafikoak, funtzioak, sinbolik ohikoenak...) autonomiaz eta sormenez erabiltzea, matematika-terminoak, -notazioak eta -adierazpenak ulertzen eta erabiltzen, nork bere pentsamenduak argi eta koherentziaz azaltzeko.</p> <p>5.- Egungo informazio- eta komunikazio-teknologiak ematen dituzten baliabideak (kalkulagailuak, ordenagailuak, etab.) zentzuz erabiltzea, egoeraren arabera egokienak hautatzen, informazioa biltzeko eta prozesatzeko, datu asko maneiatzeko eta kalkulua egiteko problemak ebazteko behar bezain zehatz eta azkar.</p> <p>6.- Matematika kulturaren osagaitzat hartzea, historian izan duen eta egungo gizartean duen egitekoa kontuan hartuta, matematika eta ingurune soziala, kulturala eta ekonomikoa erlazionatzen, gizarteko hainbat gertakari aztertzeko eta balioesteko eta nork haiekin konpromisoa hartzeko.</p> <p>7.- Lanean beharrezko eta ohikotzat hartzeko, matematika-jardueraren eta ikerketa sozioekonomikoaren berezko jarrerez jabetzea eta haiek erabiltzea: matematika-hizkuntza balioesten, datuak egiaztatzen eta alderatzen, argudioak kritikoki analizatzen, prozesuak eta emaitzak sistematikoki berrikusten eta talde-lana balioesten.</p> <p>8.- Matematika-kontzeptuak, -prozedurak eta -estrategiak erabiltzea, matematika-arloan bertan eta matematikaren eta beste jakintza-arlo batzuen arteko harremanetan eta aplikazioetan aurrera egiten, hartara, gizarte- eta ekonomia-gaiei eta beste gai batzuei buruzko ikasketak egin ahal izateko.</p>	

2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA							
	1. ebaluazioa		2. ebaluazioa		3. ebaluazioa			
5	1.-Matrizeak		5	6.-Funtzioen limiteak eta Jarraitasuna.		11	10.-Integral mugagabeak.	
9	2.-Determinanteak		9	7.-Funtzioen deribatuak		5	11.-Integral mugatuak.	
6	3.-Ekuazio linealetako sistemak.		11	8.-Deribatuaren aplikazioak.		7	12.-Zoria eta Probabilitatea	
9	4.-Zuzena eta planoak		4	9.-Funtzioen adierazpen grafikoak.		8	13.-Banaketa Binomiala eta Normala	
5	5.-Problema metrikoak							

3	IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA
<p><u>Klaseen jardura:</u> Apunte-txostena <i>da</i> ikasgaiaren garapenerako ardatz nagusia. Kontzeptuen azalpena, adibide lagungarriak eta klasean garatzeko ariketak. Ikasgai bakoitza, unitatetan dago banatuta. Orohar, unitate bat garatzeko eskola ordu bat (saio) erabiltzen da.</p> <p><u>Ikasleak ere kabuz egitekoak:</u> Astero, aste horri dagozkion helburuak eta egin beharrekoak (ariketak eta problemak) finkatzen ditu irakasleak.</p>	

4	BALIABIDEAK
<p>Irakasleak banatutako <u>apunte-txostenak</u> dira baliabide nagusia (3 ale). Hauek izango dira irakas-saio guztien gidioa. Hauetan: azalpen teorikoak, klasean landuko diren ariketa/problema, atal bakoitzeko ariketa eredu ebatziak eta proposatutako ariketa gehigarriak biltzen dira.</p> <p>IKT baliabideak. <u>Ikasgela birtuala</u>: Alexia Classroom . Aurrekoarekin batera, ikasturtearen garapen osoa Alexia Classroom aplikazioan joango da azaltzen. Honetan, ikasleak ondorengoak izango ditu eskura:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aurreko atalean aipatutako txostenetan azaltzen diren azalpenak, klaseko ariketak eta ariketa gehigarri guztiak ebatzita. • Klasean garatutakoa, azalpen teorikoak, klasean landuko diren ariketa/problema bidez grabatuta . • Astero egin beharreko lanak, froga eta azterketen edukiak, hauen datak, azterketa ereduak,... 	

TESTU LIBURUA: (zertarako erabiltzen den argitu)	ARGITALETXEA:
---	----------------------

5	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK, EBALUATZEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK, KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK
<p>EBALUAZIO IRIZPIDEAK:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1.1. Ea dakien integral mugatu bat eremu erraz baten azalerarekin lotzen. 1.2. Ea ezagutzen duen Barrow-ren erregela eta erabiltzen du integral mugatuak kalkulatzeko. 1.3. Ea dakien kurba batek eta X ardatzak tarte batean zehazten duten esparruaren azalera kalkulatzeko. 1.4. Ea dakien bi kurbaren arteko azalera lortzen. 1.5. Ea dakien kurba eta zuzen ukitzaile baten arteko azalera lortzen. 1.1. Ea egiten dituen eragiketa konbinatuak matrizeekin (oinarritakoak). 1.2. Ea kalkulatzeko duen matrize (2×2) baten alderantzizkoa, definizioa erabilita. 1.3. Ea kalkulatzeko duen matrize baten n. berreduraren legea 1.4. Ea ebatzen dituen ekuazio matrizeak. 2.1. Ea kalkulatzeko dituen 2 edo hiru ordenako determinanteak, Sarrus en erregela erabilita. 2.2. Ea ezagutzen dituen determinanteen propietateak, dagokion balioaren kalkulua errazteko. 2.3. Ea kalkulatzeko dituen lau ordenako determinanteak, zeroak eginez eta errenkada baten bidez garatuta. 2.4. Ea dakien matrize baten alderantzizkoa (3×3) existitzen den eta kalkulatzeko du. 2.5. Ea kalkulatzeko du zenbakizko matrize baten heina, Gaussen metodoaren bidez 2.6. Ea kalkulatzeko du zenbakizko matrize baten heina, minoreen bidez 3.1. Ea bereizten duen sistema bat bateragarria edo bateraezina den, eta azken kasu horretan, determinatua edo indeterminatua den. 3.2. Ea ebatzen dituen ekuazio linealen sistemak Gaussen metodoaren bitartez. 3.3. Ea dakien ekuazio-sistema bat matrize moduan adierazten, eta ahal bada, koefiziente-matrizearen alderantzizkoa lortuz kalkulatu. 3.4. Ea Cramer-en erregela erabiltzen duen, soluzio bakarra duten 2×2 edo 3×3 erako ekuazio linealen sistemak ebatzteko. 3.5. Ea eztabaidatzen dituen parametro baten mendeko ekuazio linealen sistemak, Gaussen metodoa erabiliz. 3.6. Ea eztabaidatzen dituen parametro baten mendeko ekuazio linealen sistemak, Rouché-Frobenius en erabiliz. 4.1. Ea kalkulatzeko dituen bektoreen arteko biderkaketa eskalarra, bektoriala eta mistoa eta beren esanahi garfikoak bereizten dituen. 4.2. Ea dakien zuzenaren ekuazio desberdinak bereizten eta bertan agertzen diren datuak irakurtzen. 4.3. Ea dakien planoaren ekuazio desberdinak idazten eta bertan agertzen diren datuak irakurtzen. 4.4. Ea dakien bi zuzen, bi plano edo zuzen eta plano baten posio erlatiboa bereizten. 4.5. Ea dakien bi zuzen, bi plano edo zuzen eta plano baten posio erlatiboaz eztabaidatzen parametro baten arabera. 4.6. Ea dakien zuzena eta planoaren ekuazioak eta bektoreen propietateak erabiltzen espazioko problema afinak edo metrikoak ebatzteko 4.7. Ea dakien determinatzen zuzen edo plano baten ekuazioa, intzidentzia edo paralelotasun zenbait baldintza emanda. 4.8. Ea dakien grafikoki interpretatzen ekuazio sistema baten ebazpena 	

EBALUAZIO IRIZPIDEAK (2):

- 5.1. Geometria analitikoaren laguntzaz, ea dakien distantziak eta angeluak kalkulatzeko.
- 5.2. Ea gai den egoera geometri sinpleak ebazten, bereziki, erdibideko planoak, zuzen perpendikularrak, ..
- 5.3. Ea dakien kalkulatzeko puntu baten simetria, zuzen batekiko eta plano batekiko
- 5.4. Ea dakien kalkulatzeko puntuaren koordenatuak eta zuzen eta planoen ekuazioak, intzidentzia, paralelo, elkartutikotasun baldintzetan oinarrituta.
- 6.1..Ea dakien funtzio baten grafiko egiten eta alboko limiteak idazten
- 6.2..Ea dakien limiteak kalkulatzeko $\frac{k}{0}$ kasua $k \neq 0$, Indeterminazioaren ebazpena alboko limiteak kalkulatzeko
- 6.3..Ea dakien $\frac{0}{0}$, $\frac{\infty}{\infty}$, $\infty - \infty$, $0 \cdot \infty$, 1^∞ indeterminazioak ebazten
- ..6.4..Ea dakien limiteak kalkulatzeko, espresio algebrakoan agertzen diren parametroen arabera.
- ..6.5..Ea dakien asintotak kalkulatzeko eta grafikoaren eskema egiten
- ..6.6.. Ea dakien asintotak kalkulatzeko, espresio algebrakoan agertzen diren parametroen arabera.
- ..6.7..Ea gai den jarraitutasuna puntu batean aztertzeko eta etenak lortu eta sailkatzen
- ..6.8..Ea gai den funtzio baten jarraitutasuna eztabaidatzeko, bere espresio algebrakoan agertzen diren parametroen arabera.
- ..6.9..Ea gai den jarraitutasuna aztertzeko, grafikoaren bidez eraldatzeko.
- ..7.1..Ea dakien aldakuntza tasaren kalkulatzeko tarte batean eta bere esanahi geometrikoak azaltzen.
- ..7.2..Ea dakien funtzio deribatua aurkitzen deribatuaren definizioaren bidez
- ..7.3..Ea dakien funtzio deribatuaren kalkulatzeko arauak erabiliz
- ..7.4..Ea dakien funtzio deribatuaren kalkulatzeko kalkulua deribazio logaritmikoaren bidez
- ..7.5..Ea gai den funtzio deribatuaren kalkulatzeko, funtzioa era implizituan emanda
- ..7.6..Ea kalkulatzeko duen funtzio konposatuaren deribatua katearen erregela erabiliz.
- ..7.7..Ea kalkulatzeko duen funtzio baten ondoko-ondoko deribatua, sor daitezkeen legeak aztertuz
- ..7.8..Ea kalkulatzeko duen kurba baten zuzen ukitzailearen ekuazioa puntu batean, zenbait baldintzapean
- ..7.9..Ea gai den funtzio baten deribagarritasuna aztertzeko puntu batean eta jarraitutasunarekin erlazionatzeko
- ..7.10.. Ea gai den funtzio baten deribagarritasuna aztertzeko bere espresio algebrakoan agertzen diren parametroen arabera.
- ..8.1..Ea gai den funtzio baten monotonia tarteak aztertzeko eta mutur erlazitiboak kalkulatzeko
- ..8.2..Ea gai den funtzio baten kurbadura tarteak aztertzeko eta inflexio-puntuak kalkulatzeko
- ..8.3..Ea gai den funtzio deribatuaren grafikoa emanda, f ren ezaugarriak aztertzeko
- ..8.4..Ea dakien funtzio polinomiko baten parametroen kalkulatzeko, zenbait baldintzapean
- ..8.5..Ea dakien optimizazio problemen planteamentzen eta ebazten
- ..8.6..Ea gai den Rolle-ren teorema aplikatzeko, bere hipotesiak egiaztatu eta bere esanahi geometrikoarekin erlazionatzeko
- ..8.7..Ea gai den Batez besteko balioaren teorema aplikatzeko, bere hipotesiak egiaztatu eta bere esanahi geometrikoarekin erlazionatzeko.
- ..8.8..Ea dakien Rolle eta Batez besteko balioaren teoremetan, hipotesiak aztertzen funtzioaren espresio algebrakoan agertzen diren parametroen arabera.
- ..8.9..Ea dakien L'Hôpitalen araua erabiltzen, $\frac{0}{0}$ eta $\frac{\infty}{\infty}$, $0 \cdot \infty$ eta $\infty - \infty$, 1^∞ , 0^∞ eta ∞^0 indeterminazioak ebazteko.
- ..9.1..Ea gai den funtzio Polinomikoaren adierazpen grafikoa egiteko, zenbait propietate aztertu ondoren
- ..9.2..Ea gai den funtzio Arrazionalaren adierazpen grafikoa egiteko, zenbait propietate aztertu ondoren
- ..9.2..Ea gai den beste zenbait funtzioen (Irrazionala, Esponentzial, Logaritmiko, Trigonometriko) adierazpen grafikoa egiteko, zenbait propietate aztertu ondoren
- ..10.1.. Ea dakien oinarriko funtzio baten jatorriko kalkulatzeko, zenbait baldintzapean.
- ..10.2.. Ea dakien funtzioaren integral mugagabearen kalkulatzeko, linealtasun propietateak erabiliz.
- ..10.3.. Ea dakien integral mugagabearen kalkulatzeko, aldagai aldaketa metodoa erabiliz berehalako integraletan eraldatzeko.
- ..10.4.. Ea dakien oinarriko funtzioen biderkaturaren integral mugagabearen kalkulatzeko, zatikako metodoa erabiliz berehalako integraletan
- ..10.5.. Ea gai den funtzio arrazional baten integral mugagabearen kalkulatzeko, zatiki bakunetan deskonposatzeko metodoa erabiliz.
- ..10.6..Oinarriko funtzio trigonometrikoetan, berdintza trigonometrikoak erabiliz, edota aldagai aldaketa sinpleak erabiliz, ea gai den integral mugagabearen kalkulatzeko.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK (3):

- 11.1. Ea dakien integral mugatu bat eremu erraz baten azalerarekin lotzen.
- 11.2. Ea ezagutzen duen Barrow-ren erregela eta erabiltzen du integral mugatuak kalkulatzeko.
- 11.3. Ea dakien kurba batek eta X ardatzak tarte batean zehazten duten esparruaren azalera kalkulatzeko.
- 11.4. Ea dakien bi kurbaren arteko azalera lortzen.
- 11.5. Ea dakien kurba eta zuzen ukitzailen arteko azalera lortzen.
- 12.1. Ea dakien enuntziatu bat gertaeren bidez adierazten.
- 12.2. Ea konbinazio-teknikak erabiltzen dituen kasuak zenbatzeko.
- 12.3. Ea gai den gertaera baten probabilitatea zehazteko -teknika (diagramak, zuhaitzak, kontingentzia-taulak,..) egokiena erabiltzen
- 12.4. Ea egoki erabiltzen dituen probabilitatearen legeak, gertaera baten probabilitatea lortzeko
- 12.5. Ea bereizten dituen gertaera baldintzatua eta gertaera independentea.
- 12.6. Ea gai den gertaera baten "probabilitate a posteriori" kalkulatzeko
- 13.1. Ea gai den egoera erreal bat parametro egokien banaketa binomial edo normal batekin lotzeko..
- 13.2. Ea gai den gertaera baten probabilitatea banaketa binomial edo normal bidez zehazteko.
- 13.3. Ea dakien banaketa normalaren taula erreztasunez erabiltzen, probabilitateak nahiz muga-balioak kalkulatzeko
- 13.4. Ea gai den banaketa binomial batetik banaketa normal batetara pasatzen, ahal den kasuetan

5

EBALUATZEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK, KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK:

Astero, aste horri dagozkion helburuak eta egin beharrekoak (ariketak eta problemak) finkatzen ditu irakasleak. Asteko azken klasean (ostiraletan), asteko lanak ebaluatzen dira, froga labur baten bidez (ariketa bat - 10 minutu- Puntuazioa: Otik 1 era).

Ostiraletan egindako froga bakoitzak 0,5 balioko du ebaluazioaren notarako. Azken hauetan lortutakoa guztira, ebaluazioko kalifikazioaren %20a izango da gehienez. Ebaluazio azterketaren balioa, ebaluazioko kalifikazioaren %80a izango da.

Ebaluazio batean bi azterketa eginez gero: zati bakoitzean aurreko paragrafoan azalduko kriterioa erabiliko da. Aurreneko zatia gaindituz gero, zati hori "liberatuko" da. Ebaluazioko kalifikazioa lortzeko, zati bakoitzak pisu desberdina izan dezake, erabilitako ordu lektibo kopuruaren arabera.

$$\text{Ebaluazioko nota} = (\text{ostiraletako nota}) * \%20 + \text{ebaluazioko azterketa} * \%80$$

Ikasturteko kalifikazioa hiru ebaluazioetan lortutako kalifikazioen batez bestekoa izango da.

Ebaluazioaren behin betiko nota kalkulatzeko, bigarren saiakeran lortutako nota (%80) eta lehendik zuen nota (%20) kontutan hartuko dira. Ebaluazioa gainditzeko aukera gehiago balego, behin betiko notarako, aurreko saiakera bakoitzak %20a balio izango du.

$$\text{Ebaluazioko behin - betiko nota} = (\text{Ebaluazioko nota}) * \%20 + (\text{errekuperazio - azterketako nota}) * \%80$$

Nota igotzeaz: Ebaluazioa gainditu arren, ikasleak nota hobetzera aurkezteko eskubidea du. Salbuespenez erabili behar du ikasleak eskubide hau, ez da ohiko bihurtu behar. Kasu honetan ere, ebaluazioaren behin betiko nota kalkulatzeko, bigarren saiakeran lortutako nota (%80) eta lehendik zuen nota (%20) kontutan hartuko dira.

Lehenengo deialdiko azterketan (Maiatza), ikasleak suspendituak dituen ebaluazioak gainditu ahal izateko azterketa izango du (edo 3.ebaluazioko errekeruperazio azterketa soilik egin dezake). **1 deialdian ez**

Bigarren deialdirako, gainditu gabeko ebaluazioak geldituko zaizkio pendiente.

6

BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA

Ebaluazioko errekeruperazio azterketa egiten da. Hori prestatzeko materiala (ariketak) banatu egiten zaie eta lan egiteko egutegi bat proposatu. Ikaslearen esku gelditzen da, programa horri atxekitzea edo errekeruperazio azterketa bere kabuz prestatzea.

Maiatzeko azterketan, ikasleak kurtsoan zehar ez errekeruperatutako ebaluazioak gainditzeko aukera berri bat izango du.

Bigarren deialdirako, gainditu gabeko ebaluazioak geldituko zaizkio pendiente. Horiek prestatzeko, errekeruperazio klaseak izango ditu.



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA						KODEA: 013379	2020-21					
ARLOA	BIOLOGIA						DATA 2020-09-19						
MAILA	DBH 1		DBH 2		DBH 3		DBH 4		BATX 1		BATX 2	X	

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA
	<ul style="list-style-type: none"> • Biologiako kontzeptu, lege, teoria eta eredu nagusiak ulertzea beren ezagutza zientifikoa sakontzeko eta ondorengo erabilpenerako gaitasuna lortzeko • Ikasitako kontzeptu, lege eta teoriak eguneroko egoeratan aplikatzea • Problema identifikatzea, planteatzea eta konpontzea. • Hipotesi eta teoria kontrajarriak kritikoki analizatzea • Biologiaren izaera eta mugak ezagutzea zientzia honek egungo bizi-baldintzak hobetzeko izan dezakeen garrantziaz jabetuz • Arazoak planteatzeko, hipotesiak formulatu eta kontrastatzeko autonomia eta trebetasuna lortzea • Lan zientifikoetarako beharrezko diren jarrerak azaltzea, hala nola informazio-bilketa, kritika gaitasuna, ideia berriekiko irekitasuna eta talde-lanerako egokitasuna • Biologia aldatuz eta eboluzionatuz doala ohartzea, denboran zehar azaldu diren teoriak aldatuz eta egoera berrietara moldatuz • Biologiako hizkuntza zientifikoa ezagutu eta zehaztasunez erabiltzea

2		EDUKIEN DENBORALIZAZIOA			
	1. ebaluazioa		2. ebaluazioa		3. ebaluazioa
36	1. Sarrera: biziaren kimika <ul style="list-style-type: none"> • Bioelementuak eta biomolekulak • Biomolekula inorganikoak eta organikoak. 2. Zelularen ezaugarriak <ul style="list-style-type: none"> • Eukariotak • Prokariotak 3. Bizidunen ezaugarri eta sailkapena <ul style="list-style-type: none"> • Biziaren oinarri fisiko-kimikoak • Genetika: ADNren erreplikazioa • Proteinen sintesia 	36	4. Genetika <ul style="list-style-type: none"> • Genetikako ariketa klasikoa • Genetika mendeliarra • Ingenieritza genetikoa • Mutazioak 5. Ugalketa eta ziklo zelularra <ul style="list-style-type: none"> • Minbizia • Mitosia • Meiosia 6. Metabolismo zelularra <ul style="list-style-type: none"> • Anabolismoa • Katabolismoa • Fotosintesia 	34	7. Mikrobiologia <ul style="list-style-type: none"> • Bakterioak • Birusak • Gaixotasunak 8. Bioteknologia <ul style="list-style-type: none"> • Esterilizazioa • Pasteurizazioa 9. Immunologia <ul style="list-style-type: none"> • Naturala • Artifiziala



3

IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA

- Gai bakoitzaren alderdi teorikoa eta praktikoa landuko ditugu.
- Idatzizko zein ahozko informazioa emango zaie ikasleei gaiari buruz. Testu-liburuaz gain, errebista zientifikoetatik edota beste egunkari eta errebistetatik ateratako artikulak banatuko zaizkie gaiari dagokionean.
- Ikerketa zientifiko txikiak egiteko testu zientifikoak landuko dira.
- Ikus-entzunezko materiala erabiliko dugu zenbait gaietan
Laborategiko saiakuntzak egingo dituzte ikasteek.

4

BALIABIDEAK

BIOLOGIAko testu liburua izango da oinarrizko baliabidea.

Testu liburua: BIOLOGIA. 2 Batxilergoa

ARGITALETXEA: Elkarr

Gelako aurkezpenak. Gai bakoitzeko aurkezpen bat erabiliko da ikasgelan aurkezteko.

IKT baliabideak:

- Alexia Classroom izango da ikasleek baliabide gehigarri moduan erabiliko duten IKT baliabidea. Bertatik informazio gehigarria, bideo eta dokumentalak ikusi ahalko dituzte. Ikasgelan emango zaizkien baliabide guztiak bertan aurkituko dituzte esekita.
- Eskatutako lanak Alexia Classroom plataformara igo beharko dituzte, beti ere PDF formatuan. Eskuz ere egin ditzakete entregatzeko lanak, baina entrega beti AlexiaClassroom plataforma bitartez egingo da horrela mugikorra edo eskanerra erabili beharko dute PDF formatura pasatzeko.
- Ariketa osagarriak egiteko eta informazio gehigarria bilatzeko web orri hau erabiliko da:
 - <http://recursos.cnice.mec.es/biosfera/profesor/2bachillerato/1.htm>
- Pandemia egoeran Meet eta G-suite komunikazio baliabideak erabiliko dira, Alexia Classroomen txertatuta, saioak jarraitu ahal izateko etxetik eta material guztia eskura izateko.

5

**EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK,
KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK, EBALUAZTZEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK**

**EBALUAZIO TRESNAK:**

- Hiru ebaluazio partzial egingo dira. Bakoitzean gutxienez bi azterketa egingo dira eduki kontzeptualak nahiz prozedurazkoak baloratzeko.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK:

- Ikasleak hasieran aipatutako helburuak modu positiboan lortu dituen ala ez baloratuko da.
- Modu errazean zenbait fenomenoen zergatia azaltzeko gai izan behar du: bizidunen egitura eta funtzioen arteko erlazioa, materia eta energia trukaketak, karaktereen herentzia.
- Biologian izan diren ideia eta teoriaren aldaketek arrazoiak ulertu eta azaltzeko gai izan behar du. Biologiak gure gizarteetan duen zeregina argudiatzen jakin behar du.
- Biologiako oinarrizko kontzeptuak ezagutzen dituela azaldu behar du
 - Bioelementuen eta biomolekula nagusien funtsezko zeregina deskribatzea, haien ezaugarri fisiko-kimikoak lotuz zelulan egiten dituzten funtzio biologikoekin.
 - Zelula prokariotaren eta eukariotaren antolaketa-modeloak azaltzea, egiturazko diferentziak ezarriz, haien organuluak identifikatuz eta haien funtzioak deskribatuz.
 - Ziklo zelularren ezaugarriak eta nukleoaren eta zitoplasmaren banaketa motak azaltzea, mitosiaren eta meiosiaren garrantzi biologikoa justifikatuz, sexu bidezko ugalketaren abantailak deskribatuz, eta meiosis lotuz espezieen aldakortasun genetikorekin.
 - Mutazio motak bereiztea, gure planetaren biodibertsitatean, eboluzio-prozesuan eta pertsonen osasunean duten eragina aitortuz, horren frogak argudiatuz eta oinarri genetikoa azalduz.
 - Izaki bizidunen autodefentsa-mekanismoak aztertzea, erantzun immunitarioaren ezaugarriak azalduz, bai eta immunitatea lortzeko edo areagotzeko metodo nagusiak ere.
- Arazoak planteatzeko eta ebazteko metodologia zientifikoa erabiltzeko gaitasuna azaldu behar du.
- Elkarlanerako jarrera egokia eta kooperazio-ahalmena azaldu behar du.

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK:

- Ebaluazio partzial bakoitzean bi azterketa egingo dira. Lehenengo azterketa ebaluazio-egunetatik kanpo egingo da eta ikasleak gainditzen badu, materia hori hurrengo azterketatik kendu dezake. Bigarrena, ebaluazio-egunetan egingo da. Ebaluazioko batz bestekoa egiteko bietan gutxienez 4 bat atera beharko dute, eta bien arteko batz bestekoak gutxienez 5a eman beharko du
- Lehenengo azterketa gainditu ez duenak, edo nota gehiago lortu nahi duenak, ebaluazio-egunetan ebaluaketa osoko gaiak azterketa egin dezake eta azterketa horretako nota izango du ebaluazioko-nota bezala.
- Ebaluazioan zehar eskatutako lanak entregatzea beharrezkoa izango da batz bestekoa egiteko.
- Gai guztietako laburpen-eskemak positiboki baloratuko dira.
- Zati bat edo gai guztia gainditu ez duenak, ebaluazioko gai guztiaren errekupeazio-azterketa egin beharko du errekupeazio egunetan.



- Nota igo nahi duenak, errekupeazio egunetan azterketa osoa egin beharko du, eta ebaluazioko nota azterketa horretan ateratako nota izango da.
- Ikasleak klasean duen jarrera eta parte hartzea ere kontuan hartuko da batz bestekoa egiterakoan. Gutxienez puntu bateko pisua edukiko du ebaluaketako notaren batz bestekoan.
- Azken nota hiru ebaluazioetako noten batz bestekoa izango da. Hiru ebaluaketak lehenengoan gaitzen dituen ikasleari, nota finaleko batz bestekoan puntu erdi bat gehituko zaio zuzenean.

6

BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA

- Ebaluazio bakoitzaren ondoren errekupeazio-azterketa bat izango da. Azterketa hori ebaluazioko gai guztiarena izango da.
- Ikasturte bukaeran aurretik gaitzen gabeko ebaluaketak gaitzetzeko aukera emango zaie ikasleei.
- Kurtsoko nota globala igotzeko aukera ere izango du, horrela nahi duenak, horretarako azterketa berezi bat eginaz.



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA					KODEA: 013379	2020-21					
ARLOA	LURRAREN ETA INGURUMENAREN ZIENTZIAK						DATA 2020-09-13					
MAILA	DBH 1		DBH 2		DBH 3		DBH 4		BATX 1		BATX 2	X

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA
	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ikasitako kontzeptu, lege eta teoriak eguneroko egoeratan aplikatzeko gaitasuna lortzea ▪ Lur eta ingurumen zientziako kontzeptuak eta terminologia ezagutu eta zehaztasunez erabiltzea, eta modu eta egoera egokietan aplikatzeko gaitasuna lortzea. Lur planetan gertatzen diren fenomenoen eraginak eta ondorioak azaltzeko gaitasuna izatea, eta saihesteko neurri zuzentzaileak identifikatzea. ▪ Zientzia aldakorrak direla ohartu eta hauekiko dauden hipotesi eta teoria berriak identifikatzeko gaitasuna lortzea. Horretarako datuak bildu hainbat iturrietatik, datuak aztertu eta ondorioak atera ▪ Lur eta ingurumen zientzia buruzko informazioa ondo identifikatu, interpretatu eta adieraztea. Ezagutza berriekin pentsamendu kritikoa garatzea, ekarpen berriak ahalbidetuz ▪ Natur ingurua gizakiak erabili eta aprobeztatzearen eraginak eta ondorioak ulertu, aztertu eta garapen zientifiko-teknologikoen ekarpen on eta txarrak baloratzea ▪ Lan zientifikoetarako beharrezko diren jarrerak azaltzea, hala nola informazio-bilketa, kritika gaitasuna, ideia berriekiko irekitasuna eta talde-lanerako egokitasuna

2		EDUKIEN DENBORALIZAZIOA			
36	1. ebaluazioa	36	2. ebaluazioa	34	3. ebaluazioa
	1. Ingurumena <ul style="list-style-type: none"> ▪ Ingurumena historian ▪ Ingurumen inpaktuak ▪ Ingurumen informazio iturriak 2. Atmosfera eta Hidrosfera <ul style="list-style-type: none"> ▪ Atmosferaren egitura, konposizioa eta dinamika ▪ Ozeanoen dinamika 3. Klima eta arrisku klimatikoak <ul style="list-style-type: none"> ▪ Klimaren osagaiak ▪ Mapa atmosferikoak ▪ Arrisku klimatikoak 		4. Inpaktuak atmosferan <ul style="list-style-type: none"> ▪ Ozono geruza ▪ Aldaketa klimatikoa ▪ Kutsadura 5. Inpaktuak hidrosferan <ul style="list-style-type: none"> ▪ Uraren erabilera ▪ Kutsadura ▪ Kudeaketa ▪ Plastikoen arazoa 6. Geosfera <ul style="list-style-type: none"> ▪ Energia berriztagarriak ▪ Energia ez berriztagarriak ▪ Inpaktuak ▪ Baliabide eta erreserbak 		7. Biosfera <ul style="list-style-type: none"> ▪ Ekosistemak ▪ Biodibertsitatea 8. Biosferan inpaktuak <ul style="list-style-type: none"> ▪ Zer da biosfera ▪ Biosferaren dinamika ▪ Euskal Herriko egoera 9. Kudeaketa eta garapen jasangarria <ul style="list-style-type: none"> ▪ Arazoak eta ebaluazioa eta kudeaketa ▪ Lurraren antolaketa



3

IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA

- Gaiak hasi baino lehen elkarrekin ikasleen aurre kontzeptuak aztertuko dira, gero hemendik abiatu eta gai osoa lantzeko
- Gai bakoitzaren alderdi teorikoa eta praktikoa landuko dira.
- Idatzizko zein ahozko informazioa emango zaie ikasleei gaiei buruz. Testu-liburuaz gain, errebista zientifikoetatik edota beste egunkari eta errebitetatik ateratako artikulua banatuko zaizkie, landutako gaiei buruz hausnarketa egiteko
- Bideoak eta animazioak erabiliko dira euskarri moduan. Taldekako lanak gainera ahozko aurkezpenen bidez gelakideei aurkeztuko dituzte.
- Laborategian praktikak egingo dira, atmosferaren eta hidrosferaren dinamikak aztertzeko, hondakinen kudeaketa lantzeko eta uraren kalitatea neurtzeko
- Ikerketa zientifiko txikiak egiteko testu zientifikoak landuko dira.
- Ikus-entzunezko materiala erabiliko dugu zenbait gaietan

4

BALIABIDEAK

Apunteak eta aurkezpenak erabiliko dira oinarrizko baliabide moduan, IKT baliabidez lagunduta beti ere.

IKT baliabideak:

- Alexia Classroom izango da ikasleek baliabide gehigarri moduan erabiliko duten IKT baliabidea. Bertatik informazio gehigarria, bideo eta dokumentalak ikusi ahalko dituzte. Ikasgelan emango zaizkien baliabide guztiak bertan aurkituko dituzte esekita.
- Gaien oinarrizko aurkezpenak egiteko, power-point programarekin egindako aurkezpenak erabiliko dira. Ikasleek apunteak eskuz edo gailu digitalekin hartu ditzakete
- Gaien informazio gehigarri modura bideo lagungarriak (adibidez youtube erabiliz) eta dokumentalak erabiliko dira (adibidez, dokumania, rtve.es, eitb.com etb.)
- Eskatutako lanak Alexia Classroom plataformara igo beharko dituzte, beti ere PDF formatuan. Eskuz ere egin ditzakete entregatzeko lanak, baina entrega beti AlexiaClassroom plataforma bitartez egingo da horrela mugikorra edo eskanerra erabili beharko dute PDF formatura pasatzeko.
- Bideoak egiteko Wevideo programa erabiliko da. Infografia eta posterrak egiteko Canva edo bere moduko programak erabiliko dira. Tablak eta grafikoak egiteko berriz excel edo sheets. Gelan egin beharreko lanen aurkezpena, power point edo prezi programarekin egin beharko dituzte.
- Pandemia egoeran Meet eta G-suite komunikazio baliabideak erabiliko dira, Alexia Classroomen txertatuta, saioak jarraitu ahal izateko etxetik eta material guztia eskura izateko.



5

**EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK,
KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK, EBALUAZTZEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK**
EBALUAZIO TRESNAK:

- Hiru ebaluazio partzial egingo dira. Bakoitzea, beti ere beharrezkoa ikusiko balitz, azterketak egingo dira eduki kontzeptualak nahiz prozedurazkoak baloratzeko.
- Ebaluazio partzial bakoitzean denbora-epe horretan egindako talde-lan praktikoak eta banakako lanak baloratuko dira.
- Laborategian nahiz ikasgelan egindako lan praktikoak, eta egindako txostenak ere baloratuko dira.
- Prestatutako aurkezpenak eta gelakideen aurrean aurkeztutakoak baloratuko dira

BALORAZIO IRIZPIDEA ZEHATZAK:

- Lurraren eta ingurumen zientzietako kontzeptu, teoria eta eredu garrantzitsuenak eta orokorrak eraikitze gaitasuna eraiki dituen
- Lur eta Ingurumen zientzien inguruan ikerketa txikiak egiteko gaitasuna lortu duen, bai banaka, baita taldean ere
- Ea Lurraren eta ingurumenaren zientzien ezagutzak erabiltzen dituen hainbat testuingurutan
- Zientzia hau etengabeko eraikitze prozesuan dagoela hausnartzea, eta horretarako elkarren aurkako hipotesiak eta teoriak aztertzen dituen ziurtatzea
- Ea informazio zientifikoa zuzen interpretatzen eta adierazten duen, hainbat euskarri eta baliabide erabiliz

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK:

- Ebaluazio partzial bakoitzean egindako azterketen nota eta lan praktikoetako nota kontuan hartuko da. Kasu bakoitzean, irakasleak adieraziko du kalifikazio osoaren zenbateko ehunekoa dagokion ebaluazioan landutako atal bakoitza
- Egin beharreko azterketa eta entregatu beharreko lan eta txostenetan gutxieneko 4 bat atera behar da ebaluazioaren notaren batz bestekoa egiteko.
- Batz bestekoa egiteko, entregatu beharreko lanak aurkeztu ezean, ezingo da notarik jarri.
- Ikasleak klasean duen jarrera eta parte hartzea ere kontuan hartuko da batz bestekoa egiterakoan, gutxienez ebaluazioko notaren 10%ko pisua izango duelarik.

6

BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA

- Ebaluazio bakoitzaren ondoren errekurazio-azterketa bat izango da.
- Ikasturte bukaeran aurretik gainditu gabeko zatiak gainditzeko aukera emango zaie ikasleei.
- Kurtsoko nota globala igotzeko aukera emango zaie ikasleei kurtso osoan landutako gaien buruz egindako azterketa edo/ eta lan orokor baten bitartez.
- Notaren igoerako kurtsoko azken nota, azken azterketaren eta kurtso osoan egindako lanaren islada izango da.



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA					KODEA: 013379	2020-2021			
ARLOA	FISIKA					DATA 2020-09-01				
MAILA	DBH 1		DBH 2		DBH 3		DBH 4	BATX 1	BATX 2	X

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA
	<p>1.– Fisikaren jakintzak hainbat testuinguruan erabiltzea, eta eguneroko egoeretan aztertzea zientzia horrek zer harreman duen teknologiarekin, gizartearekin eta ingurumenarekin, gizakiak dituen arazo lokalei eta globalei buruzko erabakietan herritar gisa parte hartzeko, bizitza pertsonala eta soziala hobetzen laguntzeko, ingurumena mantentzen, babesten eta hobetzen laguntzeko eta, funtsean, gizaki guztientzako etorkizun egokia eta jasangarria eraikitzeko.</p> <p>2.– Problema identifikatzea, planteatzea eta konpontzea, ikerketa txikiak egitea –bakarka edo taldeka–, gero eta autonomia gehiagorekin erabiltzea zientzien estrategiak, eta lan zientifikoa saiakuntzaren eta sormenaren bidez egiten dela ohartzea, modu kritikoa eta testuinguruaren barruan ekin ahal izateko interes zientifikoa edo soziala duten eguneroko egoerei.</p> <p>3.– Informazio zientifikoa bilatzea, interpretatzea eta adieraztea terminologia egokia eta hainbat euskarri eta baliabide erabiliz –analogikoak nahiz digitalak–, modu zehatzean, arrazoituan eta kritikoa komunikatu ahal izateko Fisikarekin lotutako gai zientifiko, teknologiko eta sozialei buruz.</p> <p>4.– Azalpenezko eskema eginez harremanetan jartzea Fisikaren kontzeptu, teoria eta modelo nagusiak eta orokorrak jakintza multzo koherentetan, eta eskema horiek autonomiaz erabiltzea sistema eta aldaketa fisiko-kimiko nagusiak interpretatzeko –zientzian nahiz eguneroko bizitzan–, eta zientziaren adar horiek duten garapenaren ikuspegi global bat edukitzeko.</p> <p>5.– Fisika etengabe eraikiz doala ohartzea, hipotesi eta teoria kontrajarriak aztertzea eta konparatzea, bai eta debate zientifikoek giza jakintzari egindako ekarpenak balioestea ere, era horretan pentsamendu kritikoa garatzeko, zientziak pertsonen prestakuntza integralerako balio duela konturatzeko, eta gizartearen eta ingurumenean dituen ondorioak balioesteko.</p>

EDUKIEN DENBORALIZAZIOA					
1. ebaluazioa		2. ebaluazioa		3. ebaluazioa	
15	0. Mekanika.	15	2. Indar elektrikoa. Eremu elektrikoa.	15	4. Higidura bibrakorrak. Higidura harmoniko sinplea. Osziladore harmoniko sinplea. Uhin higidura. Uhin fenomenoak.
20	1. Elkarrekintza grabitatorioa. Indar grabitatorioa. Eremu kontzeptua. Unibertsoko grabitazioa. Lurraren eremu grabitatorioa. Planeta eta sateliteen higidura.	20	3. Eremu magnetikoa. Eremu magnetikoaren iturriak. Eremu magnetikoaren eraginak. Indukzio elektromagnetikoa. Fluxu magnetikoa. Indukzioaren legeak. Korrante elektrikoaren ekoizpena.	12	5. Argiaren izaera. Argiaren fenomenoak. Optika geometrikoa. Prisma optikoak. Dioptriak. Ispiluak. Lenteak.
				8	6. Fisika modernoa. Fisika klasikoaren mugak. Mekanika kuantikoa. Fisika nuklearra. Erradioaktibitatea. Erreakzio nuklearrak.

3	IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA
	Ikasleak galderak erantzuten ditu bai hitzez bai idatziz irakasleak egiten dizkionak, gaiaren azalpena egiten ari den bitartean. Etxean, eguneroko jasotako azalpena ikasi behar du apunteetatik. Gaiari dagozkion problema ereduak, irakasleak egiten dituen klasean eta hainbat problema berri egin behar ditu ikasleak bai testu liburutik bai irakasleak prestatutakoak.

4	BALIABIDEAK
	<p>Apunteak: Irakasleak emandako apunteak eta ariketen zerrenda.</p> <p>Internet: bertan dauden bideoak eta animazioak gaia azaltzeko erabiliko dira.</p> <p>Alexia Classroom (moodle): apunteak eta ariketak ebatzita zintzilikatuko dira. Gaiak orri moduan antolatutako dira, ematen dituen aukerak aprobetxatzeko: bideo interesgarriak erakutsi, fenomeno fisikoaren animazioak eta abar. Audioak ere (podcast) zintzilikatzen dira gaiaren kontzeptuak hobeto ulertzeko eta sakontzeko.</p> <p>Google Meet bitartez konfinatuta dauden ikasleekin komunikatu eta klaseak emango zaizkie, Alexia Classroom ezagutzak transmititzeko ardatz hartuta.</p> <p>Laborategian eta klasean egindako gai desberdineko esperimenduak eta esperientziak.</p>



5

**EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK,
KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK, EBALUAZTZEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK**
EBALUAZIO-IRIZPIDEAK:

- Ikasleak, gaiak aztertzean eta problemak ebaztean zientzia lanaren berezko estrategiak, erabiltzen dituen.
- Pertzepzioaren bidez hautematen duena teorikoki ikasten duenarekin lotzen duen.
- Uhinen zenbait propietate kuantitatiboki eta beste zenbait kualitatiboki azaltzen dituen.
- Grabitazio unibertsalaren legea erabiliz problemak ebaztea eta balioestea zer nolako garrantzia izan duen lege horrek lurreko eta zeruko mekanika bateratzeko.
- Grabitazio elkarrekintza deskribatzeko kontzeptuak ea bereizten dituen.
- Kontzeptuak eta dagozkien magnitudeak problemak ebazteko ondo aplikatzen dituen.
- Karga eta korronteek sortzen dituzten eremuak eta kargetan eta korronteetan eragina duten indarrak kalkulatzeko eta hainbat aplikazio praktikoren funtsa justifikatzea, eremu elektrikoaren eta eremu magnetikoaren kontzeptuak erabiliz.
- Eremu elektrikoaren eta magnetikoaren hainbat aplikazio interesgarri azaltzen dituen.
- Fluxu magnetikoaren aldaketen bidezko korrante ekoizpena azaltzea.
- Fisikarekin koherenteagoa den jakintza multzoa osatzeko, elektrizitateak, optikak eta magnetismoak bat egitea dakarren aldetik ea justifikatzen duen sintesi elektromagnetikoaren garrantzia.
- Argiaren izaerari buruzko eztabaida historikoaren garrantzia ezagutzea.
- Argiaren propietateak eredu gorpuzkularra eta ondulatorioa erabiliz egiaztatzea eta azaltzea.
- Dioptrioak, ispilua eta lente meheez egindako irudiak, izpien ereduak erabiliz, teorikoki interpretatzen dituen.
- Espektratu atomikoak, efektu fotoelektrikoak, erradiazio termikoak planteatzen dituzten problemak analizatzeko, fisika kuantikoaren printzipioak erabiliz.
- Egonkortasun nuklearra lortzeko, elkarrekintza berri baten behararekin justifikatzen duen.
- Egonkortasun nuklearra lotura-energien eta erradioaktibitatearekin eta erreakzio nuklearrekin lotutako prozesu energetikoaren arabera ea interpretatzen duen.
- Kritikoki balioesten dituen aurreko aplikazio horien arriskuak eta ondorioak: aktibitate handiko hondakinak, segurtasun arazoak.

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK:

- Ebaluazioetan bi azterketa egongo dira:
 - Ebaluazioko azken egunetan gai teorikoen azterketa izango dute, bere balioa %25 izango da
 - Ebaluazioaren azterketa egunean eman diren gaien ariketak jarriko dira, bere balioa %75 izango da.
- Lehenengo ebaluazioan mekanikari buruz kontrol bat egingo da. Kontrol honen balioa notaren %30 izango da.

EBALUAZTZEKO TRESNAK:

- Idatzizko azterketetan kontuan izango dira eta baloratu ere: azalpenen argitasuna eta koherentzia, kontzeptuen zehaztasuna eta azterketaren aurkezpen egokia (txukuntasuna, garbitasuna).

6

BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA

- Errekuperazioa egiten da azterketa bakarraren bidez. Ebaluazioko azterketa teorikoa gainditu badu, nota gordeko zaio.
- Ebaluazioko errekeruperazioak nota igotzeko balio dute, baina 1. deialdiko azterketa finala ere, non azterketa globala egiteko aukera izango du ikasleak.



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA					KODEA: 013379	2020-21	
ARLOA	KIMIKA					DATA	2020- 09- 01	
MAILA	DBH 1	DBH 2	DBH 3	DBH 4	BATX 1	BATX 2	x	

1 ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA

1. Kimikaren esparruko kontzeptu, lege, teoria eta eredu nagusiak lotuz eta ezagutza multzo koherenteak osatuz, eskemak egitea, testuinguru zientifikoan eta eguneroko bizitzako edozein testuingurutan sistema eta aldaketa kimikoak azaltzeko, autonomiaz.
2. Zientzia honen berezko estrategiak gero eta autonomia handiagoz erabiliz, problemak ebaztea eta ikerlan txikiak egitea banaka eta taldeka, zientziaren edo gizartearen interesa pizten duten eguneroko egoerak kritikoki eta zein bere testuinguruan lantzeko eta zientzia-lana proben eta sormenaren bidez egiten dela ohartzeko.
3. Kimika-ezagutzak askotariko testuinguruetan erabiltzea eta eguneroko egoeretan kimikaren, teknologiaren, gizartearen eta ingurumenaren arteko harremanak analizatzea, herritar gisa parte hartzeko tokiko arazoei eta gizadiaren arazo orokorreki buruz erabaki arrazoituak hartzeko prozesuan eta etorkizun iraunkorra eta behar bezalakoa lortzen laguntzeko gizadi osoarentzat.
4. Kimika etengabe eraikitzen ari den jarduera dela ohartzeko, kontrako hipotesiak eta teoriak konparatzea, eta balioestea zer nolako ekarpena egiten dioten eztabaida zientifikoek giza ezagutzaren bilakaerari, pentsamolde kritikoa garatzeko, estimatzeko zer-nolako garrantzia duen zientziak kultura gisa pertsonen heziketa orokorrean eta balioesteko zer ondorio dituen gizartean eta ingurumenean.
5. Informazio zientifikoa zuzen interpretatzea eta adieraztea, askotariko euskarriak eta baliabideak (tartean, informazio- eta komunikazio-teknologiak) eta terminologia egokia erabiliz, zehazki mintzatzeko kimikarekin lotutako zientzia-, teknologia- eta gizarte-gaiei buruz.

2 EDUKIEN DENBORALIZAZIOA

1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
1.- Elementuen egitura atomikoa eta sailkapen periodikoa. 2.- Lotura kimikoa eta substantzien propietateak. 3.- Funtzio organiko batzuen azterketa.	4.- Erreakzio kimikoetako transformazio energetikoak. Espontaneotasuna. 5.- Oreka kimikoa	6.- Azidoak eta baseak. 7.- Elektrokimikaren sarrera.

3 IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA

Irakasleak testu liburua jarraituz, azalpenak emango ditu.
 Ikasleei agindutako ariketak eta problemak talde osoaren aurrean zuzenduko ditu.
 Irakasleak irakaslearen azalpenak jarraituko ditu, eduki ditzaken zalantzak azalpenaren amaieran talde osoaren aurrean galdetzeko.



4

BALIABIDEAK

TESTU LIBURUA: KIMIKA BATXILERGOA ARGITALETXEA: Giltza-Edebé

IKT BALIABIDEAK: IKT-ei dagokionean, Alexia Classroom izango da ikasgela birtuala. Ikasmaterial ugari eskura izango dute plataforman (informazio gehigarria, ariketak, mapak, bideoak, eskemak eta abar). Pandemia egoeran Meet eta G-suite komunikazio baliabideak etabilliko dira, Alexia Classroomen txertatuta, saioak jarraitu ahal izateko etxetik eta material guztia eskura izateko.

5

**EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK,
KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK, EBALUAZTZEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK****EBALUAZIO IRIZPIDEAK:**

Aplikatzen dituen zientzia-lanaren estrategiak, gaiak eta problemak analizatzeko eta ebazteko. Erabiltzen duen hizkuntza zientifiko egokia komunikatzeko eta argudiatzeko. Erabiltzen duen IUPACen arabeko nomenklatura kimikoa konposatu organikoak eta ez-organikoak izendatzeko. erreakzio kimikoetan gertatzen diren energia-aldaketak azaltzen dakizkien. Oreka-kimikoari buruzko ariketak eta problemak ebazten dakizkien. Identifikatzen duen substantzia eta disoluzioen izaera azidoa, basikoa ala neutroa eta aplikatzen dakizkien teknika bolumetrikokoak azido eta base baten kontzentrazioa kalkulatzeko (azido-base balorazioak). Oxidazio-erredukzio erreakzioei buruzko problemak ebazten dakizkien eta haien aplikazio praktikoak ezagutzen dituen (erredox balorazioak, pilak, elektrolisia). Elementu kimikoen antolamendua (sistema periodikoa) eta haien erreaktibotasuna dakizkien atomoen konfigurazio elektronikoetan oinarrituta. Molekulen kristalen eta egitura makroskopikoen eraketa eta propietate orokorrak azaltzen dakizkien, lotura motaren arabera. Alkoholen, azidoen eta esterren propietate fisiko eta kimikoak dakizkien. Polimeroen egitura orokorra dakien eta kimika-industria organikoan horiek duten garrantzia balioesten duen.

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK:

Ebaluazio bakoitzean idatzizko azterketa bat egingo da. Kurtsoko nota hiru ebaluazioetan lortutako kalifikazioen batez bestekoa izango da.

EBALUAZTZEKO TRESNAK:

Idatzizko azterketetan kontuan izango dira eta baloratu ere : azalpenen argitasuna eta koherentzia, kontzeptuen zehaztasuna, nomenklatura eta formulazioa eta azterketaren aurkezpen egokia (txukuntasuna, garbitasuna).

6

BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA

Ebaluazioa gainditu ez duten ikasleek, baita nota hobetu nahi dutenek, berreskurapen azterketa egin beharko dute.



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA				KODEA: 013379	2020-21			
ARLOA	ADIERAZPEN TEKNIKA GRAFIKO PLASTIKOAK					DATA	2020-06-30		
MAILA	DBH 1	DBH 2	DBH 3	DBH 4	BATX 1	BATX 2	X		

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA
1.	Adierazpen grafiko-plastikoaren teknika desberdinek adierazpen eta komunikaziorako ematen dituzten aukerak ezagutzea.
2.	Tekniken terminologia oinarrizkoa ezagutzea; haien erabilera modu kritikoan baloratzea eta lanean egoki eta ordenaz aritzea.
3.	Material artistiko ezberdinak modu egokian erabiltzea.
4.	Hizkuntza grafiko-plastikoaren adierazpide desberdinak erabiltzea eta aukera eta konbinazio desberdinekin saioak egitea, sormena eta irudi bidezko adierazpenerako gaitasuna garatzeko bide gisa.
5.	Prozesuen planifikazioan materialak, prozedurak eta faseak definitzea.
6.	Proiektu pertsonalak eta kolektiboak arakatu, garatu eta garatzea, soluzio ezberdinak kontuan hartuz eta sentsibilizazio estetikoan eraginez.
7.	Artelanak behatzen direnean, erabilitako adierazpen eta teknika eta moduen eraginaz ohartzea, eta horiek ingurune historiko eta kulturalarekin erlazionatzea.

2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA		
	1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
	1UD. HIZKUNTZA GRAFIKO PLASTIKOAK <ul style="list-style-type: none"> + Osagai nagusiak: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Forma, kolorea, ehundura... + Osagaien antolaketa: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Konposizioa. ▪ Ikus-hizkuntza grafiko-plastikoaren elementuen azterketa. 2UD. MARRAZTEKO TEKNIKAK <ul style="list-style-type: none"> + Teknika lehorrak: Grafitozko lapitzak, ikatz-zirria, barrak eta lapitz konposatuak, pastel lehorrak eta argizariak, koloretako lapitzak. + Material likidoa erabiltzen duten teknikak eta mistoak: Tinta eta haren tresnak. + Marrazketaren teknikak aplikatzea lanak egiteko eta hauek berezko duten terminologia erabiltzea. + Collagea tresna gisa. <p style="text-align: center;"><u>PROZEDURAZKOAK</u></p> <p style="text-align: center;">ARTISTAREN LIBURUA OSATZEA</p> <p style="text-align: center;">MATERIAL ARTISTIKO EZBERDINEN AUKERAK EZAGUTZEA</p>	3UD. PINTURA TEKNIKAK <ul style="list-style-type: none"> + Teknika hezeak: Akwarela, tenpera, akrilikoa... + Teknika solidoak, olioizkoak eta mistoak: Enkaustadurak, pastelak... + Pintura teknikak aplikatzea lanak egiteko eta hauek berezko duten terminologia erabiltzea. 4UD. GRABATU ETA ESTANPAZIO TEKNIKAK <ul style="list-style-type: none"> + Monoinprimaketa eta erreproduzio multiplea: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Monotipia laua (prozedura zuzenak, eransleak, kentzaileak eta mistoak), Erliebezko estanzazioa (Linoleoa, Seilu-goma...), ▪ Hutsunedun estanzazioa edo kalkografia. ▪ Estanzazio laua: Copy artikulua + Materialak, tresnak, makineria eta euskarriak. Berariazko terminologia erabiltzea. + Zoria tresna gisa <p style="text-align: center;"><u>PROZEDURAZKOAK</u></p> <p style="text-align: center;">SORMENA ERABILIZ SOLUZIO EZBERDINAK IKERTZEA</p> <p style="text-align: center;">TALDE-LANEAN ARDURAZ ETA MALGUTASUNEZ JARDUTEA</p>	5UD. TEKNIKEK ARTE ETA KULTURA ESPARRUAN DUTEN ERAGINA <ul style="list-style-type: none"> + Teknika eta prozedura garaikideak: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Argazkia eta Irudi digitala. ▪ Copy artikularen aplikazioa. ▪ Graffiti eta Forma irudia +ud. Birziklapena eta berreraikitzea + Material anitzak eta prozedura mistoak erabiliaz sormenerako aukerak zabaltzea. +ud. Teknikak eta estiloak Historian + Identifikatu eta alderatzea, kulturaren adierazpide diren aldetik + Bideoa tresna gisa <p style="text-align: center;"><u>PROZEDURAZKOAK</u></p> <p style="text-align: center;">PROIEKTUAREN FASEAK PLANIFIKATZEA</p> <p style="text-align: center;">ARTELANAREN IZAERA ANITZAZ JABETZEA</p>

3	IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA
	IRAKASTEKO: EDUKIEN AZALPENAK: teknika, material eta prozedurei buruzkoak. ARIKETEN LANKETA GIDATUA ETA PRAKTIKOA klasean. PROIEKTUEN jarraipena.
	IKASTEKO: EDUKIEN INTEGRAZIOAN, ARIKETEN LANKETAN ETA SORKUNTZA-PROZESUAN URRATSAK EMATEA izango dira ikaslearen lanik funtsezkoenak.



4	BALIABIDEAK
<p>-Unitateen aurkezpenak eta Irakaslearen azalpenak. -Alexia-Classroom plataforma digitala. -Adierazpen Teknika grafikoak plastikoak frogatzeko Arte Ederretako materialak eta tresnak. -Internet bilaketetarako. -IKTak irudigintza digitalerako.</p>	
5	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK, KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK, EBALUAZTZEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK
<p>Arte-sorkuntzarako material eta teknika arruntenak ondo erabiltzea, emaitzak probatuta eta egon litezkeen aukera ugariak aintzat hartuta: Ea zein diren dakien eta erabiltzen dituen lehorreko teknikak, teknika hezeak eta grabatzeko teknikak. Ea ekimenez jarduten den. Ea ikusten duen adieraztekoa adierazteko, teknikak, materialak eta prozedurak duten garrantzia. Ea koherentziaz adierazten den, norberaren lana argudiatzeko garaian.</p> <p>Lan-proiektu jakin baterako teknika eta prozedura egokiak zein diren aztertu eta aukeratzea, zabaldu nahi duten mezua kontuan hartuta: Ea zein diren dakien adierazi nahi denerako egokiak diren prozesu eta materialak. Ea erabiltzen dituen gaur egungo teknologiek ematen dituzten aukerak. Ea sentsibilitaterik erakusten duen soluzio plastikoekiko eta adierazpen eta irudikapen-soluzioekiko. Ea jabetzen den ikasgelan erakutsitako adibideen alderdi adierazkorrez. Ea ekimenez eta jarrera irekiarekin jarduten duen lan-prozesuan eta taldekako lanetan. Ea hartzen duen talde barruan duen ardura bere gain. Ea egiten duen ekarpen pertsonalik. Ea lan-prozesuak ikuspegi kritikorekin ebaluatzen dituen eta egiten dituen egin beharreko aldaketak. Ea justifikatzen dituen arazoei emandako erantzun artistikoak, terminologia eta lexiko egokiaz.</p> <p>Lan prozesuak planifikatzea, norberaren eta taldearen beharrei erantzunez, eta prozesurako teknika eta material egokiak argi eta garbi zehaztea, fase bakoitzaren balioa eta egokitasuna arrazoituz: Ea hartzen duen talde barruan dagoen lana bere gain, eta onartzen den horren ardura, lana banatuz eta koordinatuz. Ea jabetzen den hizkuntza artistikoek duten adierazteko ahalmen handiaz. Ea ezagutzen dituen Artearen Historiako artelan eta artista garrantzitsuenen teknika, prozedura eta materialak zein diren. Ea aztertzen dituen kultura batean eta bestean dauden arte-ekoizpenak, sortu ziren testuinguruak aintzat hartuta. Ea erabiltzen dituen artelanetan dauden molde eta baliabideak gure lanetan ere. Ea ikusten duen materialak berrerabiltzeak duen garrantzia eta horrek gauzak adierazteko ematen dituen aukerak gure lanetan ere.</p> <p>EBALUAZTZEKO TRESNAK: Edukiak praktikan integratzea Euskarri eta material ezberdinak frogatzea ariketa ugarietan. Iradokizunak aintzat hartzea eta libreki apunteak gehitzea. Lan pertsonalak garaiz eta egoki aurkeztea. Talde-jardueraren ardura hartzea, dinamizatzea eta lortutako emaitzak baloratzea. Proiektu kolektiboek dituzten faseak errespetatzea.</p> <p>KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK-ATALAK: %20 JARRERAZKOAK %30 EDUKIZKOAK %50 PROZEDURAZKOAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • <u>EBALUAZIOKO NOTA: EBALUAZIOA GAINDITZEKO ATAL GUZTIAK GAINDITU BEHARRA DAGO NAHITAEZ, ONDOREN BAKARRIK EGINGO DA BATEZ BESTEKOA.</u> • <u>JUSTIFIKATU GABEKO HUTSUNEAK JARRERA DESEGOKIA DIRA ETA KALIFIKAZIOAN ERAGINA DUTE (Hutsuneak 3 = Jarrera kalifikazioa 0)</u> • AZKEN NOTA HIRU EBALUAZIOEN BATAZ BESTEKOA IZANGO DA. • NOTA IGOTZEKO AUKERA IKASTURTE BUKAERAKO OHIKO DEIALDIAN SOILIK IZANGO DA. 	
6	BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA
<p>EBALUAZIO ORO ERREKUPERAZIO ALDIA IZANGO DA GAINDITU GABEKOA BERRESKURATZEKO.</p>	



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA					KODEA: 013379	2020 – 2021		
ARLOA	INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAK II					DATA		2020-09-02	
MAILA	DBH 1	DBH 2	DBH 3	DBH 4	BATX 1	BATX 2	X		

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA
1.	Informatikaren erabilerak gizartean eta norbanakoengan sorturiko inplikazioak jarrera gogoetatsu eta kritikoz baloratzea, informazioak gaur egungo gizartean betetzen duen zeregina aztertuz.
2.	Aplikazio-programak diseinatu eta konponbideak garatzea, programazio-inguruneak erabiliz, garrantzia izan baduten problemei irtenbidea emateko.
3.	Eduki digitalak argitaratzeko web-inguruneak garatu eta diseinatzea, informazioa argitaratzean eskuragarritasun-estandarrak aplikatuz, elkarrekintzarako aukera ematen duten bitartekoak erabiliz eta multimedia-elementuak sartzea errazten duten formatuak erabiliz, produktuak edo zerbitzuak komunikatzeko.
4.	Baliabide digitalen erabilerari dagokionez, zer behar dituen aztertzea, lortu nahi duen helbururako tresnarik egokiena aukeratzeko. Horretarako, irizpide kritikoz aztertuko ditu eskura dauden konponbideak eta tresna digitalak.
5.	Parte aktiboa izatea, eta lankidetzako aplikazioak erabiltzea Interneten, sare sozial birtualetan, informazio-igortzaile eta -hartzaile moduan, ekimen komunak sustatzeko. Lan horretan, errespetuz eta elkarlanean jardungo du, produktu kolektiboak sortu ahal izan daitezen.
6.	Idei batetik abiatuta, bai ingurune informatikoan eta bai ingurune fisikoan, errealitatearekin eramateko gai izatea.
7.	Informatika-aplikazio berriak jakin-minez eta interesez aztertu, baita sortzen diren gatazka-egoerak edo akatsak ere.
8.	Informatikaren erabiltzaile baten lanaren, jarreraren eta erantzukizunaren antolamendu-alderdiak ezagutu, bai erabiltzaile banako bezala edo informatika-sareen erabiltzaile bezala ere.
9.	Informatika oker erabiltzeak gizabanakoarengan ekar ditzakeen ondorioak jarrera erreflexibo batekin eta kritiko batekin aztertu.
10.	Informatikarekin lotutako lanbideak, Zientzia Formal nahiz Zientzia Aplikatu gisa identifikatzea.

2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA				
	1. ebaluazioa		2. ebaluazioa		3. ebaluazioa
13	1. Programatzen ikasi: Phyton lenguaia.	13	6. Programazioa eta Elektronika: Raspberry Pi.	25	10. Proiektua: gailu bat egitea.
7	2. Segurtasun informatikoa.	4	7. Web diseinua eta erabilera: web- orriak, blogak, wikiak...HTML	2	11. Kalkulu-orriak: Excel.
5	3. Auto-ediziorako eta maketatzeko aplikazioak: Scribus.		8. 3 Dimentsioko programak: Tinkercad	2	12. Datu-baseak: Access.
5	4. Proiektua: Zimiko aldizkaria.	10	9. 3D inpresioa: 3D inpresoran modeloak.		13. Online erabiltzeko programak.
2	5. Internet bidez aplikazio ofimatikoa: Google Drive.	5			

3	IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA
	<p>Erabiltzen den metodologiak, ikasleen autonomia sustatu beharko du. Horretarako funtsezkoak dira ikerkuntza eta saiakuntza estrategiak; estrategia hauetan garrantzia bizia izango dute jakintzagaiaren berezko prozedurek, ICTren ikaskuntza ulerkorra eta adierazgarria ahalbidetuko baitute.</p> <p>Era berean talde-lana bultzatuko da (ideien trukaketa, lankidetzak, eztabaidak, laguntza, eta abar), jarrera parte hartzaileak eta elkarrenganako errespetuzko jarrerak garatzeko.</p> <p>Helburu hauek lortzeko honako estrategiak erabiliko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> Ikasleek gaien azalpenak eta teoria eskuragarri izango dituzte, beraien kabuz lantzeko eta ikasteko. Irakasleak puntu zailenak edo zalantza gehiago sortu dituztenak azalduko ditu. Ikasleek zenbait ariketa egingo dituzte gaiaren zehaztasunak ulertzeko eta barneratzeko. Hauetako zenbait lan irakasleak zuzenduko ditu eta ikasleari itzuli. Beharrezkoa izanez gero lanak berriro eginaraziko zaizkio ikasleari. Talde-lanak proposatuko dira, gaietan eta ariketetan ikasi dutena errealitatearekin zerikusia duten proiektuetan erabil ditzaten.

4	BALIABIDEAK
---	-------------



- Ordenagailu gela.
- Sarea.
- Internetarako konexioa.
- Proiektorea.
- Raspberry Pi plakak eta elektronika elementuak.
- 3D inpresora.

5

**EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK,
EBALUAZTZEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK, KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK**
Ebaluazio-irizpideak:

- Ea ICTak garatu diren gizarte testuingurua identifikatzen eta gaur egun Informatikaren erabilgarritasun eta inplikazioak aztertzen dituen.
- Ea lanak eta ariketak egiten dituen, informazioa bilatzen eta biltzen eta azaltzerakoan tresna egokiak hautatzen.
- Ea aplikazio-programak egiten dituen programazio-lengoaiak jakin batean, benetako problema bati konponbidea emateko.
- Ea webean edukiak egin eta argitaratzen dituen, modu egokian sartuta testu-informazioa, zenbakizkoa, soinua eta informazio grafikoa, kontuan edukita norentzat den eta zer helburu lortu nahi diren.
- Ea segurtasun aktiboko eta pasiboko neurriak hartzen dituen informazioa trukatzean eta datuak babesteko.
- Ea ideiak proiektu errealek batera eramatea lortzen duten, bete behar diren pausuak eta helburuak lortuz.
- Ea, arazo bati soluzio bat emateko, informatika gunetik abiatuta elementu fisiko bat eraikitzen duten.
- Ea lan-proiektuak garatzen dituzten, ematen diren helburuen arabera, eta prozedura egokia ondo zehaztuz lortu nahi duten emaitzara iristeko.
- Ea ariketetan eta lan-proiektuetan akabera ona eta aurkezpen egokia lortzen duten.

Kalifikazio-irizpideak:

- Ikasleek egingo dituzten lanak eta proiektuak klase aurrean aurkeztuko dira eta bere gelakideek kalifikatuko dituzte.
- 1. eta 2. ebaluazioan emandako gaien kontrola egingo dute eta kalifikaziorako balio izango du.
- Ikasleek klasean egindako ariketak eta jarrera ere kalifikatu egingo dira.
- Irakasleak talde-lanak eta proiektuak ere kalifikatu egingo ditu.
- Azken nota ebaluazioetan izan dituzten noten batez bestekoa izango da.

Ohiko eta ezohiko ebaluaketak:

- Ohiko ebaluaketan klasean egindako ariketak eta proiektuak kontuan hartuko dira.
- Ezohiko ebaluaketan lan bat egiteko eskatuko zaie.

6

BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA

- 1. eta 2. ebaluazioetan ez dago errekupeziarik. 3. ebaluazioaren proiektuak jasotzen dituzten kurtsoan emango ditugun gaiak, beraz ebaluazio jarraitua dela uler dezakegu. Halere, azken nota, kalifikazio-irizpideetan aipatu den bezala, ebaluazioen noten batez bestekoa izango da.
- 3. ebaluazioa errekupeztzeko lan edo azterketa bat egin beharko dute.



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA					KODEA: 013379	2020-21					
ARLOA	FRANTSESA					DATA		2020-9-24				
MAILA	DBH 1		DBH 2		DBH 3		DBH 4		BATX 1		BATX 2	X

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA
	<ul style="list-style-type: none"> - Hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutako ahozko eta idatzizko diskurtsoak ulertzea. - Ahoz eta idatziz, diskurtso koherenteak, zuzenak eta egokiak erabiltzea. - Hizkuntzaren erabilera sozialak aztertzea, gogoeta eta kritika eginez. - Informazio iturriak eta teknologiak autonomiarekin erabiltzea informazioa bilatzeko. - Hizkuntza eta irakasgai guztietan ikasitako komunikazio ezagutzak eta estrategiak erabiltzea eta norberaren ikasprozesuaren gainean gogoeta egitea.

2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA				
	1. ebaluazioa		2. ebaluazioa		3. ebaluazioa
10 saio	Unité 1: Un air de famille	10 saio	Unité 4: Parcours santé	10 saio	Unité 7: L'air du temps
10 saio	Unité 2: La vie des autres	10 saio	Unité 5: Allez! Au travail!	10 saio	Unité 8: Bon voyage
10 saio	Unité 3: C'est bien chez vous	10 saio	Unité 6: Temps libre	10 saio	Unité 9: Vous voulez mon avis?

3	IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA
	<p>Landuko diren 9 unitateek egitura berbera dute. Unitate bakoitza 3 gaiak osatzen dute. Gai bakoitzak eduki soziokultural batzuk izango ditu aztergai, eta bertan helburu desberdinak landuko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ahozko eta idatzizko komunikazio helburuak. - Helburu linguistikoak (hizkuntzari buruzko gogoeta): gramatikalak, fonetikoak eta lexikoak. <p>Oro har, idatzizko testu batean edo entzumen batean oinarrituta, ulermena landuko da lehendabizi. Hortik abiatuta, hizkuntzaren gogoeta egingo da gramatikara jotzeko. Puntu gramatikal hori ariketen bidez landuko da. Gero fonetika eta ahoskera lana egingo da. Azkenik idatzizko eta ahozko produkzio koherentea eskatuko zaio ikasleari.</p> <p>Hiru gairu, sintesi-gaia izango da, errepositorako aukera emango duena eta unitatean zehar ikasitako puntu nagusiak bilduko dituena.</p> <p>Kurtsoan zehar egokitutako nobelaren baten entzuketa-irakurketa lana egingo da gelan. Iharduera hau ebaluazio jarraian ere sartuko da.</p>

4	BALIABIDEAK
	<p>Filmak eta abestiak frantsesez. CD, DVD eta Internet.</p> <p>IKT-ei dagokionean, Alexia Classroom izango da ikasgela birtuala eta bertatik bideratuko dira eduki eta jarduerak, edukiak pdf-n igoko dira. Ikasmaterial guztia eskura izango dute plataforman (testuak, bideoak, material gehigarria eta abar).</p> <p>Ikasleen lanerako programa kolaboratiboak erabiliko dira (Drive). Ekoizpena testu formatuan (word edo Google docs) eta aurkezpen formatuan (edozein plataforma, ppt, prezi, google) eskatuko zaie. Ikasleen lanak korreo elektronikoz jasoko dira.</p> <p>Pandemia egoeran Meet eta G-suite komunikazio baliabideak erabiliko dira, Alexia Classroomen txertatuta,</p>



saioak jarraitu ahal izateko etxetik eta material guztia eskura izateko, materiala korreoz ere bidaltzen ahal zaie.

5

**EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK,
KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK, EBALUAZTZEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK**

EBALUAZIO IRIZPIDEAK:

- Ahozko eta ikus-entzunezko testuak ulertzea eta interpretatzea.
- Ahozko harremanetan gogotsu parte hartzea, ikasteko eta ikasgelako gizarte-harremanak lantzeko.
- Testu idatzietan ideia orokorra eta hainbat informazio ulertzea.
- Testu idatziak ekoiztea, norberaren interesekoak eta gaur egungoak.
- Hizkuntzaren oinarrizko arauak testuetan aplikatzea.

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK:

- Ebaluazioan zehar egindako lanen batez bestekoari (idatzizko nahiz ahozkoak) erreparatuko zaio.
- Gelako jarrera, bertako lan produkzioa eta parte hartzea ere kontutan hartuko dira.

EBALUATZEKO TRESNAK:

- Kontrol froga bat izango da unitate bakoitzaren amaieran (3 kontrol ebaluazioko, beraz).
- Etxerako bidaltzen diren lanak (*Cahier d'exercices* edo *Livre de l'élève*-eko ariketaren bat).
- Gaiaren arabera zehaztuko dira ahozko aurkezpen eta frogak.
- Gaiarekiko jarrerak ere bere pisua izango du.

Unitateko kontrol partziala ez bada gainditzen, ebaluaketa azterketa egiteko aukera emango zaio. Unitateka gainditu duenak ordea, ez du ebaluaketa azterketara aurkeztu beharko ez bada nota igotzeko asmoz.

6

BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA

Aurreko atalean aipatu bezala, suspenditutako kontrol partzialak ebaluaketa azterketan gainditzeko aukera emango da. Hau ez bada gainditzen, hurrengo ebaluaketaren bidez gainditzeko aukera izango da (1. eta 2. ebaluazioetan).3.ebaluazioa suspenditzekotan, azterketa finalera aurkeztu beharko du ikasleak.



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA					KODEA: 013379	2020-21					
ARLOA	ADMINISTRAZIO ETA KUDEAKETA OINARRIAK						DATA 2020-09-09					
MAILA	DBH 1		DBH 2		DBH 3		DBH 4		BATX 1		BATX 2	X

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA
---	---

- Enpresa berrikuntzaren faktore garrantzitsuenak identifikatzea, enpresa jarduera eta sorrerarekin lotuaz. Horretarako negozio ideia bat aukeratuaz merkatu ikerketa baten ostean, bideragarria izango den enpresa proiektu bat sortzeko.
- Enpresaren ikuspegi praktiko bat lortzea alderdi eta arlo ezberdinak aztertuz eta baloratuaz.
- Enpresa bat sortzeko eman beharreko pausoak deskribatzea, kontuan izanda hartu ditzakeen forma juridiko ezberdinak.
- Enpresa jarduerak dakarren dokumentu sorta identifikatzea, erabiltzen jakitea, eta artxibatzeko gai izatea, enpresa barruko informazio eta komunikazio zirkuito bat sortuaz. Kontuan izan beharko dira derrigor enpresan gorde beharreko dokumentuak, eta hauen inguruko legedia, artxibo mota ezberdinak diferentziatuz. Hau guztia "enpresa-enpresa" edo enpresa eta beste edozein erakunderen arteko komunikazioa behar den bezala erabiltzea helburu izanda.
- Lan harremanetatik eratorritako eskubide eta betebeharrak ezagutzea, horretarako lan legedia erabiliz. Kontratu mota ezberdinak identifikatzea. Giza Baliabideen departamentuko prozedura ezberdinak ezagutzea, estrategikoetatik hasi, eta prozedura administratiboetaraino.
- Hornikuntza beharrek sortutako produktuen erosketak eta zerbitzuen kontratazioarako beharrezkoak diren prozesuak aurrera ateratzea. Horretarako ezinbestekoa izango da hornitzaileekin harreman motak zehaztea, ordainketa, prezioa, kalitatea, edo garraioa bezalako elementuak baloratuaz. Hornitutako ondasunak nola gorde eta biltegiaren kudeaketa, eta ondasun hauen balorazioa zehazteko gai izatea.
- Enpresako merkaturatze jarduerak eskatzen dituzten prozedurak aurrera ateratzeko gai izatea. Bezeroak lortzeko bideak ezagutzea. Marketing plan batean jasotzea hau dena. Enpresako merkatal jarduera jasoko dituen prozesu eta dokumentazioak ezagutzea.
- Kontabilitatearen oinarri nagusiak ezagutzea. Enpresako finantza informazioa interpretatzea, eta eguneroko prozesuak kontableki jasotzeko gai izatea. Urte bukaerako itxiera egiteko gai izatea, eta honek emandako informazioari esker enpresaren irabazi/galeren balorazioa egitea.
- Enpresako finantza jarduera ezagutzea, bertan egiten diren prozesuak eginaz. Kapitalizazioa, finantzaketa, mailegua edo amortizazioa bezalako kontzeptuak erabiltzea. Diru fluxuak kontrolatzen jakitea, eta planifikazio bat egiteko gai izatea.
- Enpresa Proiektu ahalik eta autonomoena egin eta defendatzeko gai izatea. Komunikazioarako teknikak eta gaitasunak behar den bezala erabiliz, eta talde lanerako gaitasunak landuz.

2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA
---	-------------------------

	1. ebaluazioa		2. ebaluazioa		3. ebaluazioa
10	1 U.D. EKINTZAILETASUNA: Sormena, ekintzaile izaera, enpresari- ekintzailea, ekintzailetasuna.	9	6.U.D. GIZA BALIABIDEAK	2	9.U.D. ENPRESAREN FINANTZAKETA
2	2.U.D. ENPRESA IDEIA:	9	7.U.D. MERKATURATZEA: Marketing Saila	13	10.U.D. ENPRESAKO KONTABILITATEA II: Aktibitatearen informazioa
7	3.U.D. ENPRESA PLANA: Merkatu ikerketak, DAFO, Canvas.	4	8.U.D. KONTABILITATE HASTAPENAK: Liburu nagusiak	15	11. U.D. ENPRESA ERABAKI HARTZEA
6	4.U.D. ENPRESA SORRERA	8	9.U.D. ENPRESAKO FINANTZAKETA		
5	5.U.D. ENPRESA ANTOLAKETA				

3	IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA
---	---



Ikaslearen parte-hartze aktiboan eta autonomoan oinarritutako metodologia izango da ardatz nagusia. Proiektu bat gauzatu beharko da taldeka urte guztian zehar, tarteko helmuga txikiak zehaztuta. Lan egiteko era nagusia proiektu horri jarraituaz izango da. Programa honen bitartez garrantzi berezia emango zaio ekintzaitetasuna lantzeari.

Ekintzaitetasuna lantzeko START Innova proiektuaren ildoak jarraituko dira.

Honen bitartez informazio bilaketa, aukeraketa eta sintesia landuko da, beti ere gaitegiko materiari lotuta. Honetaz gain, informazio eta ezagutza hori ahal bezain azkar aplikatu nahi da, zuzenean enpresa proiektura eta beraien hurbileko errealitatera gerturatuz.

Tarteka aurkezpenak ere egingo dira, batez ere gaitasun komunikatiboak lantzeko, eta baita proiektua (edo bere zati ezberdinak) beste edonori aurkezteko moduan definitzeko.

Irakaslearen aurkezpenak edo/eta ikus-entzunezko materiala ere erabiliko dira, batez ere gaiaren sarrerak zehazteko edo kontzeptu berritzaileak aurkezteko.

Irakasleak jarraipen eta tutorizazio lanak egingo ditu irakas prozesuko zati autonomoetan.

Problemen ebazpena ere erabiliko da zenbait atal eta gai lantzeko.

Eztabaidak integratuko dira problemen zenbait ebazpenetan, irakasleak emandako egoera baten aurrean jarrera konkretu bat defendatzeko informazio, ezagutza eta argudioak landu beharko direlarik.

Ebaultzeko hiru ardatz izango dira:

- Enpresa Proiektua: Talde bakoitzak bere enpresa proiektua jarriko du martxan. Materiaren zati ezberdinak ikusten diren neurrian, materia horri lotutako enpresaren zatia garatuko da proiektuan. Tarteko helmuga eta pauso txikien bitartez landuko da (ez da bukaerako entregarako utziko guztia).
- Enpresaren Portfolioa: Gaitegiaren izaera dela eta, enpresaren inguruko zenbait kontu ez dira proiektuan sartuko. Momentuan ariketa konkretuen bitartez landuko dira. Ariketa hauek burutu eta entregatu egin beharko ditu taldeak ebaluatzeko.
- Portfolio indibiduala: Materia dela eta, edo irakaslearen erabakiz, portfolioko ariketak taldeka beharrean banaka egin ahal izango dira, indibidualki ebaluatuko direlarik.

4

BALIABIDEAK

- Liburua: Apunte digitalak. Alexia Classroomen eta erreferentziako web gune interaktiboak.
- Erreferentzi Liburuak:
 - o Ekonomia eta enpresa antolaketa, McGrawHill.
 - o Ekonomia eta Ekimen Sortzailea, Macmillan.
 - o Kontabilitate plan orokorra.
- Internet.
- Prentsa artikulak.
- Ikasleen aurkezpenak.

IKT:

Eduki guztiak Alexia Classroom web gunetik bideratuko dira. Apunte propioak erabiliko dira, bertan eskuragarri daudenak. Horretaz gain, beste hiru plataforma interaktibo erabiliko dira:

- Startinnova proiektuaren web gunea: edukiak lantzeko, ariketak egiteko eta ebaluaziorako
- www.ekonomiaetazergak.eus webgunea edukiak lantzeko, ariketak egiteko, jolasetarako eta ebaluaziorako.
- Islasim jokoa, isla bat kuden ikasitako guztiak praktikan jartzeko modu ludiko batean.

Beraien lan egiteko plataforma Drive izango da. Drive bitartez gauzatu beharko dituzte lan guztiak, ofimatika paketea erabilita. Horretaz gain, Canva edo Lucidchart erabiliko dituzte enpresa proiektuko Canvas eredu gauzatzeko. Irudi ediziorako programak ere erabiliko dira (Inkscape, Gimp, online plataformak).

Ikasgelan lan egiteko Chromebooka edo ordenagailu bat beharrezkoa izango da. Lana modu autonomoan egingo dutenez, IKT 2 gela erabiliko dute gailurik ez dutenek.

ARGITALETXEA:

5

**EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK,
KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK, EBALUAZTZEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK**

**Ebaluazio Irizpideak:**

1. Enpresa berrikuntzaren faktore garrantzitsuenak eta enpresa sorkuntza erlazionatze ditu.
2. Enpresa kokatzen den ingurune eta sektoreko aktibitatea analizatzen du.
3. Negozio ideiak analizatu, baloratu eta aukeratzeko ikuspuntu kritiko bat garatu du.
4. Enpresaren barne antolaketa, forma juridikoa edo kokapena aztertze gai da, eta proiektuaren helburuak betetzeko alternatiba ezberdinak baloratzen ditu.
5. Enpresa sortzeko bidea eta tramite guztiak ezagutzen ditu, eta horretarako beharrezkoa den dokumentazioa erabiltzen du.
6. Enpresaren horniketa beharrak eta helburuak ezartzeko gai da.
7. Enpresaren hornitzaileak ongi aukeratzeko beharrezko pausoak ematen ditu eta beharrezko azterketak burutzen ditu.
8. Hornitzaileen kudeaketa planifikatzeko gai da, komunikazio eta negoziazio teknikak aplikatuz.
9. Enpresako produktuen merkaturatze plan bat eta marketing-a garatzeko gai da.
10. Lehiakideen prezioen informazioa ikertzen du, eta bere produktuentzako prezio bat ezartzeko gaitasuna dauka.
11. Marketing politika ezberdinak aztertzen ditu.
12. Giza Baliabideen kudeaketa planifikatzen du.
13. Langileen aukeraketak eta kontratazioak dakartzan pauso denak ezagutzen ditu, bai prozedura aldetik, baita dokumentazio eta legedi aldetik ere.
14. Enpresako gertaerak kontableki jasotzeko gai da, Kontabilitate Plan Orokorra jarraituta.
15. Kontabilitateak eta urte amaierako kontuek emandako informaziora iristeko gai da, eta informazioa hau interpretatzen du.
16. Enpresaren inbertsio beharrak identifikatzen ditu bere jarduera aurrera eramateko, eta inbertsio hauek lortzeko finantza bide ezberdinak ezagutzen ditu.
17. Enpresaren bideragarritasuna aztertze bide ezberdinak ezagutzen ditu eta bide hauek erabiltzeko gai da ikuspuntu kritiko batekin.
18. Proiektua bestean aurrean defendatzeko gai da, bere ikuspegia argudiatuz eta komunikazio bide egokiak erabiliz. Lan honetarako IKT ezberdinek eskeinitako baliabideak aprobetxatzen ditu eta aurkezpenak hobetzeko erabiltzen du.

Kalifikazio Irizpideak:

Nota horrela banatuko da:

- Proiektua eta Portfolioa: %80
- Ikasgelako jarrera %20

Proiektua eta portafolioa:

- Portafolioa osatzerakoan taldekako zein bakarkako lanak eskatu ahal izango dira.
- Lanak eskatzen diren datetan ez entregatzeak penalizazioa izango du.
- Laneko atalen bat ez entregatzeak, asignaturaren suspentsioa ekarriko luke.

Ikasgelako jarrera:

- Ikasgaiarekiko duten interesa baita partehartzea ere hartuko dira kontuan.

IKASGAIA GAINDITU AHAL IZATEKO KALIFIKAZIO PORTZENTAIA BAKOITZEAN GUTXINENEOA ATERA BEHARKO DA, LORTU EZEAN EZ DA IKASGAIA GAINDITUKO.

Ebaluazio tresnak:

- Ikasleen lanak eta hauek ebaluatzeko errubrikak.
- Jarrera ebaluatzeko errubrikak.

6

BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA

- Edukiak ulertu eta gainditzeko laguntza eskainiko zaio gainditu ez duen ikasleari.
- Gainditu gabeko atala/atalak errepikatzeko aukera emango zaio, gutxieneko mailara iristeko.
- Lanak utzikieriaz egin gabe edo oso gaizki eginda aurkezten badira, irakasleak ikasle bat taldez aldatu ahal izango du, edo lan individual bat eskatu ahalko dio berreskurapenerako.
- Azken posibilitate bezala gutxieneko edukien azterketa jarri ahalko da.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA
SAILA Hezkuntzako Ikuskaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E
INVESTIGACIÓN Delegación de Educación



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA					KODEA: 013379	2020-21		
ARLOA	PSIKOLOGIA					DATA 2020-06-30			
MAILA	DBH 1	DBH 2	DBH 3	DBH 4	BATX 1	BATX 2	X		

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA								
<p>1. Zientziaren berezko planteamenduak ezagutu gizakion arazoak ulertu eta aztertzeko, beste modu ez-zientifikoetatik bereiziz.</p> <p>2. Aniztasun pertsonala eta kultur aniztasuna, aberastasun-iturri eta aldaketa-eragile gisa kritikoki eta tolerantziaz baloratzea.</p> <p>3. Norbanakoaren eta gizartearen errealitatea bere alderdi intelektual, afektibo eta jokabidezkoen dagokionez analizatu eta kontrolatzeko eraginkorrak diren ezaguera eta estrategiak eskuratzea.</p> <p>4. Gaitasun kritikoa informazio eta ezaguera berriak lortzeko erabiltzea, «mass media» euskarri desberdinetatik abiatuz eta hauen ondorengo tratamendu eta lanketaz kezkatuz.</p> <p>5. Diziplina hauen aplikazio-esparru nagusiak eta lanbide-mundua gehien kezkatzen duten auzi eta arazoak ezagutzeko, psikologia zientzia gisa baloratuz eta etorkizuneko ikasketa akademikoen perflerako edo lanbide-perflerako honen ekarpenak ezagutzeko.</p>									

2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA								
1. ebaluazioa			2. ebaluazioa			3. ebaluazioa			
<p>1. PSIKOLOGIA ZIENTZIA GISA</p> <p>2. JOKABIDEAREN OINARRI BIOLOGIKOAK</p> <p>3. GOGAMEN-PROZESUAK 1: -SENTSAZIOA, PERTZEPZIOA ETA ARRETA -KONTZIENTZIA EGOERAK -IKASKUNTZA</p> <p>PROZEDURAZKOAK</p> <p>Norbanakoaren behaketa pertsonala bere alderdi afektibo eta emozionala landuz: barne hausnarketa...</p>			<p>4. GOGAMEN-PROZESUAK 2: -GIZA OROIMENA -PENTSAMENDUA ETA ADIMENA -KOMUNIKAZIOA ETA HIZKUNTZA</p> <p>5. MOTIBAZIOA ETA EMOZIOA</p> <p>6. NORTASUNA ETA GIZA SEXUALITATEA</p> <p>PROZEDURAZKOAK</p> <p>Testuinguruaren azterketa: inguru sozioekonomiko eta kulturalaren eragina, ikasitakoa...</p>			<p>7. NAHASMEN ETA TERAPIA PSIKOLOGIKOAK</p> <p>8. GIZAKIAREN IZAERA SOZIALA</p> <p>9. LANAREN ETA ERAKUNDEEN PSIKOLOGIA</p> <p>PROZEDURAZKOAK</p> <p>Gai baten inguruko ikerketa eta aurkezpena: ikasturtean zehar landu eta ikasitakoaren partekatzea...</p>			
Elkar zaintzea			Ikasketa prozesua ezagutzeko			Parte hartze aktiboa			

3	IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA								
<p>-Aurkikuntza gidatuaz: Informazio anitzak, Lanketa ereduak ⇨ Kontzeptualizazioa eta Errepresentazio ekintzak.</p> <p>-Ikasitakoaren integrazioaz: Gai garapenak, Iruzkinak, Lan monografikoak, Ikerlanak eta Aurkezpenak ⇨ Aplikazio ekintzak</p> <p>-Gogoeta kritikoak.</p>									

4	BALIABIDEAK								
<p>-Alexia Classroom plataforma.</p> <p>-Irakaslearen azalpenak eta gelako jarduerak</p> <p>-Erabiliko diren informazio iturri ezberdinak: Batxilergoko testu liburuak: Elhuyar, Gaiak eta Mc Graw Hill euskarazko liburu berriaren editoriala. EHUko dokumentuak, bestelako artikulak, irudiak, filmak ...</p> <p>-Informazioa osatzeko Internet eta lan pertsonal zein taldekakoetarako ordenagailuak.</p>									

5	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK, KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK, EBALUAZTEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK								
<p>-Irizpideak:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Gaien ezagutza: eduki nagusiak ulertu, hiztegia aberastu eta ezagutzaren garapenean aurrerapausoak ematea baloratuko da. -Ikasgelan eta ikasgiran ekarpen baikorrek egitea eta besteen iritziaik errespetatzea baloratuko da. Parte hartzea aktiboa ere bai. <p>-Tresnak:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Lan (ikerketa) pertsonalak zein taldekakoak egitea nahitaezkoa da eta hauek gogotsu eta sakon burutzea baloratuko da: %30 -Ebaluazio oro, apunte, kompetentzia jardura eta edukiak integartzeko ariketen kontrola eta ebaluazioa egingo da: %50 -Jarrera: ikaste prozesuarekiko ahalegina eta atxikimendua kalifikatuko da: %20 <p>-Kalifikazioaren batez bestekoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Ebaluazioa gainditzeko hiru atalak gainditu beharra dago nahitaez, ondoren bakarrik egingo da batez bestekoa. -Justifikatu gabeko hutsuneak jarrera desegokia dira eta kalifikazioaren eragina dute (hutsuneak 3 = jarrera kalifikazioa o) -Nota igotzeko aukera ikasturte bukaerako ohiko deialdian soilik izango da, ikasturte osoko edukiak frogatuz. -Azken nota hiru ebaluazioen batez bestekoa izango da. 									

6	BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA								
<p>-Ebaluazio oro berreskurapen aukera bat eskainiko da</p> <p>-Behar izanez gero segimenduan, lan-eritmoan eta proiektuetan sakonduko da.</p>									